

LEGE BILTZARRAREN JARDUERA ETA DATU PERTSONALEN BABESA DBEB-REN DOKTRINA



Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

LEGEBILTZARRAREN JARDUERA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

DBEB-REN DOKTRINA



Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de **Protección de Datos**



Agencia Vasca de Protección de Datos – Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71 - 3º
01008 – VITORIA-GASTEIZ

avpd@avpd.eus
www.avpd.eus

Legebiltzarraren jardura eta datu pertsonalen babesa: DBEBren doktrina

ISBN: 978-84-608-7488-1
ISBN: 978-84-608-7487-4 (paperezko edizioa)
L.G. VI-290/2016

Lan hau Creative Commons-da



Aitortu (by)

Aske zara:

- Lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko
- Bernahasteko - lana egokitzeke
- Lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

Baldintza hauetan:

- **Aitortu** - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak zehaztutako eran (baina ez aditzera emanez haien babesa duzunik edo haien obraren erabilera hori babesten dutenik).

Informazio gehiago: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>

AURKIBIDEA

1. Sarrerako azterlana	5
2. Irizpenak	
I. Kontrol politikoa exekutiboari. Informazio eskabideak	17
CN15-017 (2015-11-09) / Legebiltzarkide batek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko langileek egindako bidaiei buruz egin duen eskabidea ondo ezkontzen da datuak babesteko araudiarekin	19
CN15-012 (2015-08-24) / Legebiltzarkide bati mediku-partearak lagatzea	33
CN14-027 (2014-07-22) / Legebiltzarkide bati lagatzea administrazioaren eraikin bateko segurtasun sistemak grabatutako irudiak	39
CN13-051 (2014-01-21) / Lan kontratazioko espediente bat legebiltzarkide bati lagatzea	45
CN15-020 (2015-11-09) / Lehen hezkuntzako hirugarren mailako probei buruz legebiltzarkide batek egindako galdera ea datu babesaren araudiarekin bat datorren	53
II. Legebiltzarreko eztabaidetatik eratorritakoak	59
CN15-027 (2015-11-16) / Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiak egindako ziurtagiriak, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko	61
III. AZETA eskubideak	67
CN13-043 (2013-11-18) / Erakunde web bateko datuak ezereztea	69
3. Gaien aurkibidea	75

LEGEBILTZARRAREN JARDUERA ETA DATU PERTSONALEN BABESA: DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN DOKTRINA

I. SARRERA

Autonomia erkidegoen konfigurazio juridikoa ondo ulertzeko, funtsezko zeregina da parlamentu autonomikoen oinarri duten diseinu konstituzionalaren aipamena egitea. Bestalde, parlamentu autonomikoetan datza autonomia erkidegoetako gobernu organoak aldi-aldi hautatzeko legitimitatea.

Diseinuaren ardatza Konstituzioa eta erkidego bakoitzeko autonomia estatutua dira, eta bien artean diseinatzen dute bata bestearen osagarri parlamentu autonomikoen antolakuntza, bai eta bertako ordezkarien hautaketa ere.

Esan izan dute "egun estatu espainiarrean autonomia erkidegoen egungo konfigurazioaren ezaugarrietako bat autonomiaren kualifikazio politikoa dela, eta horrexegatik eta horrexen ondorioz dagoela erkidego bakoitzean demokratikoki hautatutako ordezkari organo bat, eta organo horren egiteko garrantzitsuenetako bat dela benetako edukia ematea, legegintza eginkizunaren bidez eta nazionalitate edo lurralde bakoitzak bere gain hartutako eskumenak aintzat hartuta, autonomia erkidegoari"¹.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 25. artikulua dionez, Eusko Legebiltzarrak "legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe."

Beraz, Estatutuak Eusko Jaurlaritza kontrolatzeko ahala aitortzen dio Euskal Legebiltzarrari, eta, Legebiltzarraren gaitasun horrek ekarri ditu bi organoen arteko desadostasunik handienak datu babesaren esparruan.

Parlamentuek Gobernuak kontrolatzeko ahala dute, eta ahal hori badute ere, ez dute beti behar bezala erabili; eta gobernuak ere ez dute beti behar bezala erantzun; eta hala izan da maiz, bi organoen artean ez delako egon lankidetzarako asmorik. Halakoak gertatu izan direnean, behin baino gehiagotan entzun dugu datu pertsonalen babesaz baliatu direla Gobernuari egindako informazio eskaerak ukatzeko edo galdereri ez erantzuteko. Baina, datu pertsonalen babesa horretarako erabiltzea ez da zuzena, eta ez du behar den moduan interpretatzen datu babesari buruzko araudia,

¹ El Parlamento Vasco: Relieve constitucional, organización y funcionamiento. *Revista de Estudios Políticos*, 46-47 zenbakiak, 1985eko uztaila-urria, 151-182 orrialdeak.

datu babesari buruzko araudiak ez duelako trabarik jartzen halako organoen arteko informazio trukeak egiteko, baldin eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoak ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen badira. Beraz, lehenengo eta behin argi utzi behar dugu informazio eskaera baten aurrean beti ezetz erantzutea ez dela zuzena eta ez dela legearen interpretazio egokia.

Denetik ikusi dugu Legebiltzarreko organoak Gobernuak kontrolatzeko zeregina burutzen saiatu izan direnean: egon dira gobernu batzuk, eskatu dieten informazioa ukatzeko, ukatu nahi zuten dokumentazioan pertsona jakin baten izena ageri zela esan eta informazioa ukatu dutenak; baina, beste batzuk jarrera egokiagoa agertu dute datu babesarekiko, eta begiratu dute ea lege gaikuntzarik dagoen, eta, halakorik ezean, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4. artikuluan xedatutako kalitatearen printzipioan oinarritutako azterketa egin dute.

II. DBEB-REN IRIZPENEN GAINEKO OHARRA

Azaldutako ildoari jarraiki, azken boladan Euskal Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak egindako hainbat galdera erantzun ditu Agentziak; eta hori dela eta, Agentziak doktrina berezitua finkatu eta garatu du argitzeko ea Jaurlaritzak dokumentazioa eman ahal dion Eusko Legebiltzarrari, dokumentazioak datu pertsonalak dituenen.

Hainbat gai aztertu behar izan ditugunez, sailkapena egiteko, kapitulu berean bildu nahi izan ditugu gai bereko hainbat irizpen; **lehenengo multzoan jaso ditugu botere exekutiboaren gainean botere legegileak egin beharreko kontrolari buruzkoak, bereziki informazio eskabideei buruzkoak.**

Begien bistakoa da zergatik antolatu dugun horrela. Argi dago datu babesari dagokionez, Legebiltzarraren jarduera interpretatzen egindako lan gehiena gobernuaren kontrolari lotuta dagoela. Baina, zilegi da, legeren batek gaitzen duelako, Legebiltzarrak gobernuari eskatzen dion dokumentazioa ematea, dokumentazioak datu pertsonalak baditu? Gobernuak horixe galdetzen du nagusiki, eta askotan datu pertsonalaren kontzeptua txarto interpretatzen delako, edo lege aurreikuspenak ez direlako behar den bezala ezartzen, trabak sortu dira.

Atal honetan hainbat irizpen jaso ditugu. Bata da CN15-017 Irizpena, legebiltzarkide batek, Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko langileek egindako bidaiari buruz eskatutako informazioaren gainekoa. Beste bat da CN15-012 Irizpena, Eusko Jaurlaritzari zenbait datu mediku duen informazio dokumentatua eskatuz egindako eskabide bati buruzkoa. CN14-027 Irizpena ere multzo honetan jaso dugu. Irizpenak aztertzen du ea legebiltzarkide batek eskubiderik ote duen bideo kamera batek egindako grabazioak ikusteko. Atal honetan jaso dugu beste irizpen hau ere bai: CN13-051 Irizpena. Bertan aztertzen dira Jaurlaritzari langileak hautatzeko espediente bat dela-eta egindako eskabidea eta espedientearen edukia. Eta, azkenik, CN15-020 Iri-

zpena ere bertan gehitu dugu. Irizpen hau legebiltzarkide batek, lehen hezkuntzako hirugarren mailako probei buruz egin zuen eskabideari buruzkoa da.

Bigarren kapituluaren izenburua da “Legebiltzarreko eztabaiden gaineko hainbat kontu”; eta irizpen bakarra jaso dugu bertan: CN15-027 Irizpena. Irizpena ez da gobernuaren kontrolari buruzkoa, legebiltzarkideen jardueraren baitakoa eta eztabaida parlamentarioaren esparrukoari buruzkoa baizik, eta tartean datu pertsonalak daude. Lerro hauek idazten ari naizen honetan Irizpenaren gaiak sona handia du: 26/2015 Legeak, adingabeekin harreman zuzena duten lanbideetan era batean ala bestean lan egiten duten pertsonen izenak zuzentzeko zuzenbideak, frogatzeko sekula ez direla kondenatuak izan sexu izaerako delituren batengatik. Legebiltzarkide batek egin zuen galdera hau, eta Estatuko lege batekin du zer ikusia. Baina, pertsona jakinei eragiten dienez, eta Legebiltzarrean eztabaidatu zenez, datuak babesteko kontrol erakundearen iritzia eskatu zuten.

Bukatzeko, **hirugarren kapituluak datuak atzitzeko, zuzentzeko, ezereztzeko eta datuei aurka egiteko eskubideei (AZETA eskubideak) buruzko irizpen bat dugu.** Hautaketa prozesu batean parte hartu zuen pertsona baten datuak web gune batean ezereztari buruzko irizpena da. Gaiak ez du legebiltzarreko jarduerarekin zer ikusi zuzenik, baina, bere garaian eragina izan zuen Legebiltzarrean; gainera, azken boladetan asko eztabaidatu den kontu bati buruzkoa da: Interneteko emaitzak ezabatze eskubidea, hau da, aldizkari ofizialetan agertzen diren datuak ezabatze eskubidea; batez ere, aldizkari ofizialak formatu digitalean tratatzen direnetik eta aurreko aldizkariak digitalizatu direnetik gertatzen da.

Segidan hiru kapituluak aztertuko ditugu, eta irizpenak banan-banan begiratu. **Lehenengo kapitulukoekin hasiko gara, hau da, botere exekutiboaren gainean botere legegileak egin beharreko kontrolari buruzkoekin.**

CN15-017 Irizpenak legebiltzarkide batek egindako informazio eskabide dokumentua aztertzen du. Legebiltzarkideak eskatu zuen 2014an eta 2015eko lehenengo seihilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko sailtako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako, esparru publiko fundazioetako, partzuergoetako eta abarretako langileek egindako bidaia guztien zerrenda; bai eta beste informazio hau ere: bidaia bakoitzaren gaineko azalpena-arrazoiak, eta bidaia bakoitzean zein pertsonen (kargua-postua barne) hartu zuten parte, iraupena, garraioa eta ostatu mota, eta kostua guztira. Ikusten denez, eskatutako informazioak bolumen handia zuen, langile guzti-guztiek egindako laneko bidaia guztiei buruzko eskaera zelako, eta 18 hilabetetan egindakoak; hau da, eskabideko denbora tartea ere oso zabala zen. Gainera, aipatzekoa da eskatutako informazioak datu pertsonalak zituela, pertsona jakinei buruzko informazioa eskatu zutelako, izen-abizenekin. Beraz, pertsona identifikatuei buruzko datuak zirenez, datu horiek datu pertsonaltzat jo behar ziren.

Datuak babesteko kontrol agintaritzara helarazi zuten kontsulta, eta galdetu ea Eusko Legebiltzarrak halako datuak eskuratzeko eskubiderik duen, nahiz eta bere kontrol ahalaz baliatzeko izan; lehen esan dugunaren arabera, legebiltzarkideak eskatutako dokumentazioak datu pertsonal pilo handia zuelako. Horrez gain, beste galdera bat ere egin ziguten: ea lege gaikuntza egonez gero, ondo ezkontzen zen datuak babesteko araudiarekin, informazio guztia disoziatuta ematea, hau da, "datu pertsonalak kenduta" ematea. Azkenik, galdetu ziguten ea zein zen informazioa disoziatuta bidaltzeko modurik egokiena.

Hasteko, argi dago datu pertsonalak lagatzeaz ari garela, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 11. artikulua xedatzen ditu datu lagatzeak. Bestalde, 11. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letrak dio datu pertsonalak lagatzeko debeku orokorrak salbuespen hau duela: *"lege batek baimentzen badu lagapena"*.

Beraz, hori hala izanik, argitu behar da ea datuak lagatzea gaitzen duen legerik dagoen. Legebiltzarkideek gobernuari informazioa eskatzeko eskubidea dute, eta Konstituzioaren 23.2 artikuluan dago xedatuta. Legebiltzarkide orok du informazioa eskatzeko eskubidea, eta artikulua horretan aipatzen diren eskumen publikoen eta ordezkariaren eskumenen barruan kokatu behar da. Horren gaineko jurisprudentzia konstituzionala argia da.

Beraz, oinarritzeko eskubidea da, eta Konstituziotik dator zuzen-zuzenean. Konstituzionaltasunari dagokionez, esan behar da Autonomia Estatutuak ere horren gaineko aurreikuspen bat duela 25.1 artikuluan. Artikuluak Eusko Legebiltzarraren eginkizunak aipatzen ditu: *"Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe"*. Era berean, Estatutuaren 27. artikulua dioena ere gogora ekarri behar dugu, xedatzen duelako, Konstituzioaren 72. artikulua bezala, Legebiltzarrak funtzionamendu-erregelamendu bat beharko duela.

Baina, batez ere Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua da kontu honetaz zuzenean ari dena, xedatzen duelako legebiltzarkideek beren eginkizunak modurik eraginkorrenean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkietela Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta enpresa publikoei; eta eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da.

Bigarren idatz-zatiak eskabidea egiteko eta erantzuna jasotzeko prozedura arautzen du, eta erantzuteko 20 eguneko epea finkatzen du. Eta hirugarren idatz-zatiak interes berezia du, oso eztabaidatua izan zelako kontrol eginkizuna baliatzeko modu berezi bat arautzen duelako, hau da, eskatutako dokumentazioaren izaeratik edo indarrean dauden arauetatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren ordeztan, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio.

lako legebiltzarkideari. Eta halakoetan, legebiltzarkideak egoki iritzitako oharra hartu ahal izango ditu, eta orobat dokumentuen kopiak eskuratu ere bai. Hirugarren paragrafoko bigarren idatz-zatiko xedapena ere oso eztabaidatua izan da, xedatzen duelako, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera baliatuz gero, "aztergaiaren adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango dituela bertara legebiltzarkideak," betiere "Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar-taldearen aholkulari direla".

Laugarren idatz-zatiak ere prozedurari buruzko aurreikuspenak dakartza, hau da, administrazioak ukatu egiten baldin badu eskatutakoa, Legebiltzarreko Mahaira jo daiteke babes eske, Administrazioari eskaera betetzeko eska diezaion.

Beraz, argi dago Erregelamenduko 11. artikulua legebiltzarkideei aitortzen diela esparru publikoko datuak, txostenak eta dokumentuak atzitzeko eskubide zabala.

Lege esparrua aztertu eta gero, Agentziak erantzun behar izan du ea aurreikusi ditugun lege-arau horiek nahikoa lege gaikuntza diren eta nahiko zilegitasun ematen duten aztertzen ari garen datu lagatzea egin ahal izateko, kontuan izanda DBLOren 11.2 a) artikulua xedatzen duela, datuak lagatzeko adostasunik ez dagoenean, lege baten baimena behar dela.

Esan behar da oso argigarria dela jakitea lege gaikuntzarik dagoen ala ez, halakorik egonez gero, zilegi izango delako Jaurlaritzaren eta Legebiltzarren arteko datu lagatzea, nahiz eta dokumentazioak datu pertsonalak eduki. Esan behar dugu kontu hau oso gatazkatsua izan dela Estatu osoan, bai Kongresuan bertan bai autonomia erkidegoetako parlamentuetan.

Edozelan ere, orain mintzagai dugun irizpenean eta argitalpen honetan jasotako CN13-051, CN14-027 eta CN15-012 irizpenetan ere ondorio berbera heldu gara, hau da, orain arte azaldu dugun araudia ikusita eta Konstituzio Auzitegiak parlamentu-etako erregelamenduen izaerari eta ondorioei buruz behin eta berriz eman duen interpretazioa ikusita, ateratzen dugun ondorioaren arabera, **argi dago Eusko Legebiltzarren Erregelamenduak baduela indarra eta lege gaikuntza nahikoa, esparru publikoari eskatzeko legebiltzarkideei emateko eskatzen dituzten datuak.**

Esandakoak garrantzi handia du Euskal Autonomia Erkidegoan botere legegilearen eta exekutiboaren arteko harremanean; baina, ez da nahikoa egin dizkiguten galdera guztiei erantzuteko. Hain zuzen ere, argitu behar delako zein den eskubide horren edukia; beste era batean esanda, jakin behar dugu zein den datu lagatzearen helmena edo zein diren lege gaikuntzaren mugak.

Kontua zertan den aztertzeke, esan behar da datu pertsonalak babesteko eskubidea eta legebiltzarkideen informazioa eskuratzeko eskubidea ez direla erabateko eskubideak edo eskubide mugagabeak; aitzitik, gainontzeko eskubideak bezala, bi eskubideok ere hainbat muga dituzte. Horrek esan nahi du batzuetan Jaurlaritzak berak ba-

loratu beharko duela ea mugarik dagoen edo ea zein egoeratan ukatu ahal izango den edo ukatu egin beharko den eskatutako dokumentazioa. Adibidez, segurtasun edo defentsa kontuak daudenean tartean, edo beste lege aurreikuspen batzuk ezarri beharrak ekarritako mugan, beti ere Konstituzioaren mugen baitan. Adibidez, muga batzuk aipatzekotan, bat izan daiteke pertsonen beste eskubide batzuk egotea jokoan: adierazpen askatasuna, kultura askatasuna, pentsamendu askatasuna eta abar.

Era berean, garrantzi handiko beste kontu bat da Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa, bereziki, bertan jasotako aurreikuspenetako bat: **kalitatearen printzipioa. Kalitatearen printzipioak mugak ezar diezazkioke Legebiltzarrerara bidali beharreko dokumentazioaren edukari eta edukierari.**

Eusko Legebiltzarrari buruzko doktrina birpasatu eta irizpenaren aztergaia ikusi eta gero, eta lehenago ere esan dugunez, Legebiltzarrean eskatu dutena da Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko funtzionarioek,aldi baterako langileek eta goi-kargudunek (langile guztiek) 18 hilabetetan (2014an eta 2015eko lehenengo sei-hilabetean) egindako bidaia guztien gaineko informazio guztia.

Aztertu beharreko kasu zehatz honi behar bezala erantzuteko, beste alderdi bat aztertu da irizpenean: gobernuak "kontrolatzeko eginkizuna". Eta horrek beste galdera hau ekarri du: eskatu duten informazioa benetan da beharrezkoa gobernuaren ekin-tzaren berri izateko, aztertze eta baloratzeko? Galderari erantzuteko, Eusko Legebiltzarraren eginkizunak aintzat hartzeaz gain, kalitatearen printzipioa ere eskuartean izan behar dugu. Doktrinak asko landu duen printzipioa da, eta lehen esan dugunez, DBLOren 4. artikulua arautzen du. Artikuluak informazio pertsonala nola erabili behar den finkatzen du eta mugak ezartzeko hainbat parametro finkatzen ditu, xedatzen baitu informazio esparruarekiko datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak bakarrik tratatu daitezkeela. Horrez gain dio datuak ezin izango direla erabili datuak biltzeko helburuekin bateragarriak ez diren xedeetarako. Egoera horretatik abiatuta, Agentziak iritzi dio ondo aztertu behar dela zer informazio eskatu duten eta zertarako eskatu du-ten, eta, horrela, eskabidea aztertu proportzionaltasunaren irizpidea kontuan hartuta.

Agentziaren doktrina beti agertu da, gainontzeko kontrol agintaritzena bezala, infor-mazio pertsonalaren eskabide masibo eta indiskriminatuen aurka, eta irizpen honetan horri buruzko hainbat adibide aipatzen dira. Eta proportzionaltasun irizpidea nork azter-tu edo baloratu behar duen ere argitzen du, eta dio Legebiltzarrak eskabidea aztertu behar duela eta Jaurilaritzak erantzuna.

Konstituzioaren ikuspuntutik begiratuta ere aztertu da kontua, eta irizpenak bat behintzat aipatzen du: Konstituzio Auzitegiaren 2013ko urtarrilaren 31ko Epaia. Epaia gaia da ea polizia modu masiboan laga ahal zaizkion atzerritarren eroldako inskripzio datuak; eta Konstituzio Auzitegiak epai horretan dioenez, berriaz arrazoitu eta justifikatu behar da lege-manuak aurreikusten duen eroldako datuetan modu telematiko sartzeko erabiltzaile izaera; eta ahal dela lortu sarbide indiskriminatu edo masiborik ez egotea.

Beraz, ondorio bat izan daiteke datu pertsonalen eskabide masiboek eta indiskriminatuak ez dutela betetzen, itxura batean behintzat, proportzionaltasun irizpidea.

Bestalde, irizpen honek badu berrikuntza bat, eta da gaur egun ezartzen hasi berria den Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Legearen eragina ere aztertu duela. Zehazki esateko, Legearen 15. artikulua aipatzen du, artikulua horrek hainbat mugak jartzen dizkiola eskatzaileari eman beharreko dokumentazioari dagokionez, dokumentazioan datu pertsonalak baldin badaude. Irizpenean hitzez hitz jaso da legearen aipamena.

Kapitulu honetan jaso dugun beste irizpen bat da **CN15-012** Irizpena, **legebiltzarkide batek Eusko Jaurlaritzako sail bati egindako informazio eskabide bati buruzkoa**. Legebiltzarkideak eskatutako informazioak Eusko Jaurlaritzako funtzionario batzuk jasotako zauriei buruzko mediku parteekin zer ikusia du. Kasu honetan eztabaida sortu zen eskatu zutelako Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikotik eratorritako hainbat printzipio zuzenean ezartzea; izan ere, eskabideak berak planteatzen baitu datuak anonimizatuta ematea. Eta datu anonimizatua edo datu disoziatua zer den azaltzen du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamendua onartzen duen 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1.e) artikuluan jasotako definizioak: *“tartearen dena edo interesatua nor den jakiteko aukerarik eskaintzen ez duena”*. Horrek esan nahi du esku artean dugun datua ez baldin bada pertsona identifikatu edo identifikagarri bati buruzkoa, ez dela ezarri behar datu babesari buruzko araudia; beraz, 15/1999 Lege Organikoren 2.1 artikulua jasotakoak ez luke eraginik izango halako egoeran datuak lagatzeko. Erregelamenduak dioenez, pertsona identifikagarria da honakoa: *“Bere nortasun fisikoari, fisiologikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko edozein informazioaren bidez zuzenean edo zeharka identifika daitekeen pertsona oro.”* Pertsona fisiko bat ez da identifikatzeko modukotzat joko baldin eta identifikatzeko proportzioz gaindiko epeak edo jarduerak behar badira.”

Beraz, legebiltzarkideak egin zuen eskabidearen planteamenduari eta Jaurlaritzak eman zion erantzunari erreparatzen badiegu, ikusten da legebiltzarkideak datu disoziatuak bakarrik nahi zituela, eskabidean adierazi zuenarekin bat; hau da, informazio agregatua. Eta irizpenak azaltzen du Jaurlaritzako dena delako sailaren esku dauden pertsona konkretuen datu pertsonalei atzera ezinezko disoziazio prozedura ezarri behar zaiela, halakoa datuak emanez gero, ezinezkoa izan dadin datuen hartzaileak datuak berreskuratzea edo pertsonak berridentifikatzea.

Hala ere, irizpenak hainbat gogoeta ditu osasun datuen gainean eta bereziki babes-tutako datuak direla gogoratzen du. Lehen esan dugunarekin bat, Jaurlaritzak legebiltzarkideari datuak emateko lege gaikuntza nahikorik bat ote dagoen ere aztertzen du irizpenak, eta badago gaikuntza, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduko 11.2 a) artikulua dioenaren arabera.

Norbanakoaren osasun fisikoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa dakarten datuei osasun datu deritze. Datu intimoak dira, pertsonaren duintasunari atxikiak. Baina, hala ere, ez dute erabateko babesia; eta kasu batzuetan laga egin behar dira, eta beste datu batzuekin talka egin dezakete. Baina, interpretazioak beti murriztailea izan behar du.

Beraz, datuen disoziaziorik egiten ez denean, Agentziak uste du halako datuak bildu eta tratatzeko eta lagatzeko, gaiari buruzko berriarazko lege aurreikuspenak bete beharko direla nahiatez.

Badago irizpen bat, 2014ko uztailaren 22ko data duen **CN14-027** Irizpena, lehen aipatu ditugun artetik lehenengoaren ildo berekoa. **Irizpenak aztertzen du legebiltzarkide batek Eusko Jaurlaritzako sail bati egindako eskabide bat kamera baten grabazioa ikusteko.**

Eusko Jaurlaritzak galdetu zuen ea zer egin zitekeen bateragarriak izateko bi eskubide hauek: batetik, legebiltzarkideak eta, halakorik egonez gero, Legebiltzarrean behar bezala egiaztatutako aholkulariak, Legebiltzarreko informazio eta kontrol eginkizunak burutzeko, irudi horiek ikusteko duten eskubidea, eta, bestetik, ikusi behar dituzten kameretako grabazioetan ageri diren pertsonen datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Hasteko, esan behar da irudia datu pertsonala dela, eta irudiak garbatzea datuak tratatzea dela. Hortik abiatuta, datu lagatzearen kontzeptuaren definizioa ekarri da gogora: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*. Kontuan izanda badagoela datuak lagatzeko nahikoa lege gaikuntza, datu lagatzearekin oso ondo ezkontzen ez diren hainbat kontzeptu aztertu dira. Hasteko, hainbat irudi “informazio sentsibletzat” jo dira; baina, datuak babesteko esparrutik begiratuta, irudiak ezin dira berez informazio sentsibletzat hartu. Esan behar baita datu sentsibleak DBLOren 7. artikulua zerrendatzen dituenak direla, horiek bakarrik; eta ezin da berririk gehitu.

Dudarik gabe, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren doktrinaren bilakaeran garrantzi handiko irizpena da **2014ko urtarrilaren 21eko CN13-051 Irizpena, legebiltzarkide batek egindako eskabidea bat zela eta, Eusko Jaurlaritzak espediente oso bat lagatzeari buruzkoa.**

Gai honetan Eusko Legebiltzarrak funtsezko elementu bat planteatu zuen: *“ea Legebiltzarreko erregelamendua ezin den datu lagatzeak baimentzeko besteko arau orokor eta baliogarrizat jo [11.2 a) artikulua]; ea zein izan daitekeen informazioa emateko modua, datu pribatuak behar bezala babestuta; eta ea Agentziak auzi honetan zer jotzen duen garrantzitsutzat.”*

Agentziak irizpen horretan finkatu zuen lehenengo aldiz halako doktrina, eta gerora berretsi egin du, antzeko kasuei buruzko galderak erantzun dituenean. Kasu honetan aztertu da ea kontratazio espediente oso bati buruzko informazio dokumentatuaren eskabidea nahitaez eman behar den eta ea lege babesik dagoen emateko.

Irizpen honetan aipatu zen, estreinako, badagoela nahikoa lege babes Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko datu lagatzeak egin ahal izateko, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 11. artikulua xedatzen duena eta Diputatuen Kongresuarekin zer ikusia duten beste erregelamendu batzuk garatzen dituen jurisprudentzia konstituzionala kontuan hartuta. Esandako guztia aintzat hartuta, irizpenak ebatzi zuen artikulua horretan badagoela nahikoa lege gaikuntza, eta lege izaera duela gainera.

Beraz, doktrinak argi usten du nahikoa lege gaikuntza dagoela. Irizpenak beste kontu bat ere aztertzen du, hau da, gerta litekeela bereziki babestutako datuak emateko arriskua egotea, adibidez, espedienteen dauden osasun datuak. Izan ere, espedienteen test psikoteknikoen edo nortasuneko enaitzak baitaude, eta halako datuak osasun datutzat jotzen dira, hala xedatzen duelako abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5 g) artikulua: *“pertsone baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa”*. Kontrol agintaritzek argi jaso dute doktrinan ebaluazio psikoteknikoetatik datozen datuak osasunarekin zer ikusia duten datuak direla, hain zuzen ere, datu psikologikoak direlako, eta azterketa egin dutenen gaitasunak eta nortasuna ebaluatu izanaren emaitza direlako. Datu psikologikoen tratamenduek, ebaluatutako pertsonen profil osoak sortzen dituzte, eta hortik are sentsibleagoak diren beste datu batzuk ondoriozta daitezke, esate baterako, sinemen moralak eta erlijiosoak edo pertsonen bitzta sexuala.

Osasun datuak zer diren ikus eta gero, segidan aztertu behar da ea nahikoa lege gaikuntzarik dagoen osasunaren arloko datu pertsonalak lagatzeko. Kasu honetan, kontrol agintaritzek azpimarratu dute datuen tratamendua ekarri duen helburua dela gakoa, eta, beraz, DBLOren 4. artikulua ezarri behar dela: hasiera bateko helburua lortzeko egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak diren datuak baino ez direla tratatuko. Edozelan ere, Legebiltzarreko lehendakaritzak egin beharko du, Mahaiarekin batera, proportzionaltasunaren gaineko azterketa, galderari dagokionez; eta Jaurlaritzak egin beharko du datu bidalketari buruzkoa.

CN15-020 Irizpenean aztertu da duela gutxi berriro mahai gainean agertu den Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arteko harremana, kontrol eginkizuna tartean dagoenean; eta horren arrazoiak izan da **legebiltzarkide batek eskatu dituela Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak lehen hezkuntzako hiru-garren mailan egin dituen probak**. Esan behar da legebiltzarkideak proba egiteko hautatu zituen ikastetxeen izena baino ez zuela eskatzen, publikoak eta pribatuak bereizita, eta zein ikastetxetan egin zen azkenean proba eta zein ikastetxek esan zuten ezetz, ez zutela proba egingo. Legebiltzarkideak eskatu zuen informazioak ez zuten datu pertsonalik eta berehala ikusi zen hori, eskabideetan ez zuelako eskatzen pertsona jakinei buruzko elementurik. Kontuan hartzen bada pertsona fisikoak bakarrik direla datuak babesteko oinarrizko eskubidearen titularrak, erantzuna garbi dago: ez zaio datuak babesteko araudia ezarri behar legebiltzarkidearen eskabideari. Horri buruz ezer gutxi dugu esateko.

Beste kontu bat dago, **CN15-027** Irizpenak aztertu zuena, eta bere garaian oihartzun mediatiko handia izan zuena: 26/2015 Legearen 13.5 artikulua xedatutako eskakizuna, hau da, **adingabeekin ohiko harremana izatea** dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko bete beharreko baldintza izango dela epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik (...). Horregatik, halako lanbidean eta lan jardueretan aritu nahi dutenek hori hala dela egiaztatu beharko dute, eta, horretarako, **Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.**

Arazoa sortu zen Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia artean sortu gabe zegoelako, eta, horren ordez, Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiaren egiaztagiri bat aurkeztu behar zelako; eta horrek kalte handia egiten zien egiaztagiria aurkeztu behar zuten pertsoneri, batetik, Zigor Aurrekariei buruzko ziurtagirian argi geratzen zelako ez zutela sexu delituengatik kondenarik jaso, baina, bestetik, pertsonak egindako beste delitu batzuk agertu ahal zirelako, eta horrek kalte handia egin ahal zuelako lan edo lanbide bat eskuratzeko orduan.

Legebiltzarretik Datuak Babesteko Euskal Bulegora bidali zuten kontsulta hau, kezka handia eragin zuelako gaiak. 13.5 artikulua honakoa xedatzen du: *“Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko bete beharreko baldintza izango da epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik, esate baterako, sexu-erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa eta adingabeak galbideratzea eta gizakien salerosketa. Horregatik, halako lanbidean eta lan jardueretan aritu nahi dutenek hori hala dela egiaztatu beharko dute, eta, horretarako, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.”*

Kontsultari erantzuteko, adostasunaren auzia agertzen zaigu eta horri heldu behar diogu. Hasiera batean ematen du Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztagiri negatiboa eskatu behar duen pertsonak nahi duen tokian aurkeztu dezakeela, nahi duelako. Baina, hori ez da hala, norberaren adostasuna ez delako aintzat hartzen, hau da, ez da aintzat hartzen adostasuna adierazteko askatasuna. Izan ere, adostasunak borondate-adierazpen aske, zalantzarik gabe, zehatz eta arrazoitua izan behar badu. Ezin da inor behartu adostasuna derrigorrez eta behartuta adieraztera.

Beraz, adostasunak funtsezko osagaia izan behar du datu pertsonalak kudeatzen ditugunean, eta borondate-adierazpen askea izan behar du.

Azkenik, hirugarren kapituluan jaso dugun **CN13-043** Irizpena azalduko dugu. Bertan aztertu zen **erakunde bateko web orrian hainbat datu ezerezte**a zilegi zen ala ez. Eusko Legebiltzarrak galdetu zigun ea ezereztu behar ziren 1982az geroztik Legebiltzarreko aldizkari ofizial batean ageri ziren pertsona baten datu pertsonalak, urte hartan funtzionario plaza baterako lehiaketa-oposizio batera aurkeztu zelako.

Azken urteotan aldizkari ofizialek egin dutena izan da data batetik aurrera argitaratutako aldizkarien formatu digitalizatua ofizializatzea, eta aldi berean data horretatik atzerako aldizkariak eskaneatzea. Horren ondorioz, Interneten bi eratako argitalpenak daude: zinadura digitaldun aldizkari ofizialak batetik, eta aldizkari originala eskaneatutako aldizkari zaharragoak bestetik. Aztertzen ari garen kasua bigarren multzokoa da, hau da, zinadura digitala ezarri aurreko garaiko aldizkaria da. Horrek esan nahi du Interneten dagoen aleak bere garaian paperean egin zen argitalpen ofiziala erakusten duela, eta helburua informatzailea dela.

Era berean, kontuan izan behar da garai hartan parte hartzaileen datu pertsonalak argitaratzea legitimatzen zuen arrazoa edo oinarria zela nahitaez bete behar zirela hautaketa prozesuetan publizitate eta lehia printzipioak. Baina, egia da, helburu hori lortu eta gero, ponderatu egin behar dela ea benetan derrigorrezkoa den datuak argitaratuta segitzea eta ea edizio digitalen argitalpen epeak iraun behar duen ala ez. Hasiera batean, informazioak hor segitzeak urratu egiten du, gure ustez, DBLOren 4.1 artikuluko datuen kalitatearen printzipioa.

Administrazio publikoetan gaur egun ohikoa da ponderazio lan hori. Baina ponderazio lana egiteko, kontuan izan behar dira, beste batzuen artean, ediktuen iragarki-oholei buruzko araudia eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, jakinarazpen helburuarekin, pertsona jakinei buruzko informazioa argitaratzeko araudia; eta horko datuak modu murriztuan argitaratu behar direla, eta datuak ez indexatzeko neurriak ere hartu behar direla, datuak ez egoteko behar baino denbora gehiago ikusgai.

Irizpenak dio nahitaezko argitalpen aldia igaro eta gero, aldizkari ofizialetan argitaratuta dauden datu pertsonalak ez indexatzeko mekanismoak finkatu behar direla.

ONDORIOAK

Ikus dezakegunez, kasu praktikoak gogora ekarrita, Legebiltzarreko jarduerari buruzko hainbat kontu argitzea lortu dugu, bai eta azken boladan eztabaidagai izan diren beste gai batzuk ere, botere legegilearen eta betearazlearen arteko harremanak direla eta.

Baina, harreman horretan datu babesak duen eragina ez da ulertu behar modu negatiboan edo murriztailean. Konstituzioaren 18.4 artikulutik zuzenean datorren oinarritzko eskubide hau, hots, datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea ez da erabateko eskubidea, eta ezin da beste eskubide guztien gainetik ipini. Datuak babesteko oinarritzko eskubideak amore eman behar du beste eskubide batzuk daudenean tartean, eta, batez ere, lege izaerako arau batek beste eskubide batzuk ere aldarrikatzen ditue-nean, adibidez, erakunde pribatuen edo publikoen artean datuak nahitaez laga behar direla ezartzen badu legeak.

Beraz, horren arabera, ez da zuzena gobernuak datuen babesa aitzakia moduan erabiltzea Legebiltzarraren kontrol eginkizunari iskin egiteko, Legebiltzarrari informazioa ukatzeko eta abar. Ez da jokaera zuzena. Ez da horrela jokatu behar, eta datu-babesa edozelan erabiltzea ez da portaera egokia eta zilegia.

Zentzu horretan, datu-babesa bi erakundeen arteko harremanetan kontuan hartu beharreko elementua da, eta erabakigarria izango da harremanaren nondik norakoak finkatzeko, zein dokumentazio eta zein formatutan eman zehazteko, eta, hala badagokion, zein eduki ez den eman behar finkatzeko ere bai.

Iñaki Pariente de Prada

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria
(2012ko maiatzetik 2016eko urtarrilerarte)

I.
KONTROL POLITIKOA
EXEKUTIBOARI.
INFORMAZIO ESKABIDEAK

Legebiltzarkide batek Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko langileek egindako bidaiei buruz egin duen eskabidea ondo ezkontzen da datuak babesteko araudiarekin

Data: 2015-11-09

CN15-017

LEGEBILTZARKIDE BATEK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESPARRU PUBLIKOKO LANGILEEK EGINDAKO BIDAIEI BURUZ EGIN DUEN ESKABIDEA EA DATUAK BABESTEKO ARAUDIAREKIN ONDO EZKONTZEN DEN EBAZTEKO EGINDAKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: [...]-(e)k helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Kontsultan galdetzen dute ea datuak babesteko araudiarekin ondo ezkontzen diren legebiltzarkide batek Eusko Jaurlaritzako hainbat saili egindako informazio dokumentatuaren eskabideak (hogeita hamar inguru), denak antzeko edukiarekin. Eskabideek eskatzen dute 2014an eta 2015eko lehenengo seihilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko sailietako, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako, sozietate publikoetako, esparru publikoko fundazioetako, partzuergoetako eta abarretako langileek egindako bidaia guztien zerrenda; bai eta beste informazio hau ere: bidaia bakoitzaren gaineko azalpena-arrazoiak, eta bidaia bakoitzean zein pertsonak (kargua-postua barne) hartu zuten parte, iraupena, garraioidea eta ostatu mota, eta kostua guztira.

Bidali dituzten informazio eskabide batzuetan berariaz aipatzen da zein langileri buruzko informazioa eskatzen den, aldi baterako langileak, funtzionarioak eta goi-karguak.

Irizpen-eskabidearekin batera, aurkeztu dute informazio-eskabideen zerrenda jasotzen duen eranskin dokumentatua.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egindako kontsultan honako galderak daude:

“Lehenengoa. Nola lor daiteke kasu honetan ondo ezkontzea, batetik, legebiltzarkidearen informatzeko eta kontrol eginkizuna burutzeko eskubidearen ondorioz, legebiltzarkideak egin dezakeen bidaiei buruzko informazio eskabidea, eta, bestetik, bidaiei buruzko informazioak ukitzen dituen datu pertsonalen babesa?

Bigarrena. Gertatzen bada legezkoa dela eta nahikoa lege-gaikuntza dagoela lehen aipatu ditugun bidaiei buruzko informazio-eskabideetan langile publikoei

buruz (izen-abizenak, NAN zenbakiak, eta abar) eskatzen den informazio zabala emateko (hartara, funtzionarioei, aldi baterako langileei, goi-kargudunei, itunpeko langileei eta abarrei buruzko informazioa eman beharko genuke), eta kontuan hartzen baditugu Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 2013ko abenduaren 18ko CN13-046 Irizpenean aipatzen dituen proportzionaltasunaren eta kalitatearen printzipioak eta doktrina: nola eman beharko genuke legebiltzarkideak eskatutako informazioa bertan agertzen diren pertsonen datuak behar den bezala babestuta egon daitezten? Informazioa zuzenean eman behar da, pertsonen datu identifikatibo eta guzti, azken finean legebiltzarkide batek eskatu duelako legebiltzarkideen informazio eta kontrol eginkizunak burutzeko? ala informazioa disoziatuta eman behar da? hau da, informazioa eta datu identifikagarriak bereizita?

Hirugarrena. Informazioa disoziatuta eman behar bada, hau da, informazioa eman behar bada legebiltzarkideak eskatu duen bidaia-gastuak egin dituen langile publikoaren datu identifikatiboetatik bereizita, nola uste du Agentziak egin behar dela hori, zein da modurik egokiena?

Laugarrena. Eta lehen aipatu dugun irizpenean jasota dagoen doktrinarekin jarraituz, legebiltzarkideari informazioa disoziatuta emanaz gero, eta legebiltzarkideak eskatuz gero pertsona zehatzei buruzko berariazko datu xehatuak (izena, NANA, zenbaki profesionala eta abar), zilegi da datu horiek lagatzea pertsona horien adostasunik gabe?."

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egin dioten kontsultaren gaia da ea ondo ezkonzen diren elkarrekin datu pertsonalak babesteko eskubidea eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko langile guztiek egindako bidaiei buruzko informazio dokumentatua lagatzea legebiltzarkide bati.

Eskabide hau Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren arteko harremanen esparruan egin dute, hau da, legebiltzarraren kontrol eginkizuna burutzeko. Eta ebatzi behar dena da ea informazioa eskatu duen legebiltzarkideari informazioa ematea bat datorren pertsonen pribatutasunerako eskubidearekin (Konstituzioaren 18.4 artikulutik datorren eskubidea).

Datu pertsonalak lagatzea edo komunikatzea zer den dioen definizioa Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikuluan dago jasota. Datu lagatzeen lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta artikulua dio datuak lagatzeko arau orokorra dela interesdunak adostasuna agertzea (11.1 artikulua). Baina, hala ere, 11. artikuluko 2. idatz-zatiak arau orokor horrek dituen salbuespenak jasotzen ditu. Irizpen honi dagokionez, a) idatz-zatia ekarri behar dugu hona:

“Lege batek baimentzen badu lagapena”

Beraz, aztertu beharko dugu ea ba ote dagoen nahikoa lege gaikuntza, ukituen adostasunik gabe lagatzeko, eskatu dituzten datuak.

Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziak dioenez, legebiltzarkideek dagokion gobernuaren eta administrazioaren informazioa eskatzeko eskubidea dute, eta eskubide hori ius in officium delakoaren baitakoa da; eta Konstituzioaren 23.2 artikuluan jasota dagoenez, legebiltzarkideei eskubide hori dutela aitortu behar zaie.

Edozein legebiltzarkidek du informazioa eskatzeko eskubidea, eta eskubide hori Konstituzioaren 23. artikuluan aurreikusita dagoen ordezkariatzako eginkizun publikoetan parte hartzeko eskubidearen baitan dago, hau da, kargua eskuratzeko eta bertan egoteko aukeraz gain, karguan aritzeko baldintzak ere hartzen ditu bere baitan.

“... parlamentuko kideen aldeko norbanakoen eskubide hau sortzen da... eta eskubide honi esker administrazioari informazioa eskatu ahal izango zaio, beti ere Erregelamenduak ezartzen duen eran eta betekizunekin, ... eta eskubidea diputatu karguaren estatusarekin batera datorrenez, Konstituzioaren 23.2 artikulua bermatzen duen oinarritzko eskubidean txertatzen da eta haren zati bihurtzen da” (irailaren 20ko 161/1988 KAE).

Urriaren 15eko 203/2001 KAEk ere honakoa dio:

“Konstituzioaren 23.2 artikulutik datorren eskubide horrek administrazio publikoari informazio jakin bat eskatzeko eta informazioa jasotzeko eskubideak hartzen ditu bere baitan”

Beraz, argi dago eskabidea egin duen legebiltzarkideak Konstituzioaren 23.2 artikuluko oinarrizko eskubidea baliatu duela eskabidea egiteko, eta legez taxuturiko eskubidea dela.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organiakoaren bidez onartu zen Estatutuaren 25.1 artikulua xedatzen ditu Eusko Legebiltzarrak dituen eginkizunak:

“25. artikulua.

Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jauriaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.”

Bestalde, Autonomia Estatutuaren 27.1 artikulua zera xedatzen du:

“27. artikulua.

1. Legebiltzarrak legebiltzarburua, Mahaia eta Batzorde Iraunkorra hautatuko ditu bere kideen artean. Osoko Bilkuratan eta Batzordetan jardungo du.

Legebiltzarrak berak finkatuko du bere barne-araudia, eta legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko da.”

Konstituzioaren 72.1 artikulua ere antzeko zerbait dio:

“72. artikulua.

Ganberak beren araudiak ezartzen dituzte; euren aurrekontuak autonomiaz onesten dituzte; eta, bi-bion adostasunez, Gorte Nagusietako Langileen Estatutua ematen dute. Araudiei eta horien eraldaketari dagokienez, azken botazioa egingo da haien osotasunari buruz, eta, botazio horretan, erabateko gehiengo lortu beharko da.”

Beste alde batetik, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 10-16 artikuluek legebiltzarkideen eskubideak eta eskumenak arautzen dituzte. Komeni da 11. artikulua jasotzen duen aurreikuspenari erreparatzea. Hona hitzez hitz dioena:

“11. artikulua.

1. “Legebiltzarkideek, beren eginkizunak modurik eraginkorrean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkiete Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta

enpresa publikoei. Eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da.”

2. Eskaera, betiere, lehendakariaren bidez zuzenduko zaio dagokion administrazioari. Administrazioak 20 eguneko epea izango du, gehienez, eskaera betetzeko edo, bete ezin badu, epe berean, horretarako dituen arrazoiak idazki batean azaltzeko.

3. Eskatutako dokumentazioaren izaeragatik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiarik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki irizitako oharra hartu ahal izango ditu, eta orobat dokumentuen kopiak eskuratu ere.

Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean, aztergaiari adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar-taldearen aholkulari direla.

4. Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat datorrela adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arrazoiak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman behar dio hurrengo osoko bilkuran.

5. Era berean, Euskal Herriari era batera edo bestera eragiten diola uste duten informazio oro eskatu ahal izango diete legebiltzarkideek Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, bai eta Europar Batasuneko instituzioei ere. Eskaera Legebiltzarreko lehendakariaren bidez eta legeetan aurreikusitakoari jarraituz egingo da.

6. Legebiltzarkideek orobat, beren egitekoak bete ditzaten, beharrezko informazio eta dokumentazioa jasotzeko eskubidea dute, zuzenean Legebiltzarretik edo beren legebiltzar-taldearen bitartez. Eskatutakoa emateko betebeharra dute kasuan kasuko zerbitzuek.”

Eusko Legebiltzarren Erregelamenduaren 11. artikulua ahal zabala aitortzen die legebiltzarkideei, eta beren eginkizunak modurik eraginkorrenean betetzeko, euskal esparru publikoan dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dituzte.

Horregatik, hasteko argitu behar den kontua da ea aurreikuspen hori lege gaikuntzat har daitekeen eta datuak lagatzea legeztatzen duen, DBLOren 11.2 a) artikularen ondorioetarako.

Ondorio horietarako, kontuan izan behar da Konstituzio Auzitegiak behin eta berriz esan duena: *“Parlamentuko Erregelamendua ezin da parekatu Konstituzioaren 97. artikularen babespean Gobernuak emandako legeekin, nahiz eta erregelamendu deitu tradizioz. Izan ere, Konstituzioari zuzen-zuzenean lotuta dagoen (KAE 101/1983) arau primarioa baita, eta horregatik lege balioa du, nahiz eta legearen berezko indarririk ez izan (KAE 119/1990) eta KAE 226/2004, 227/2004 eta KAE 301/2005). Hori dela eta, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontrako deklarazioa ez dezan (Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 27.2 d) artikulua eta Konstituzio Auzitegiaren 44/1995, 177/2002, 234/2000 eta 101/2008 epaiak), nahiz eta arau guztiak ez izan konstituzionaltasunaren blokeoak (KAE 36/1990).”*

Beraz, doktrina konstituzionalaz aparte, ateratzen den beste ondorio bat da Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua dela legebiltzarkideei datu pertsonalak lagatzeko gaikuntza ematen dien legea.

Gainera, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren aurreikuspen hori osatzen du Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 44. artikulua:

“Jaurlaritzak eta Jaurlaritzako kideek, Legebiltzarreko Araudiak honetaz agindu dezanaren kaltetan gabe, honako hauek egin beharko ditu:

- 1. Legebiltzarrak eska dezanean bertan agertzea.*
- 2. Legebiltzarraren Araudiak ezarri dezan moduan, Legebiltzarrak egin diezazkion eskabideei, erantzun-eskeei, itaunei eta adierazpenei erantzutea.*
- 3. Legebiltzarrari ematea Jaurlaritzari, Jaurlaritzako kideei, eta Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eta funtzionarioei eta erakunde autonomoetako eta enpresa publikoetako arduradunei eskatzen zaien informazioa eta laguntza.*
- 4. Jaurlaritzakideek, Legebiltzarraren bilkuretarako joateko eta bertan hitza egiteko eskubidea dute. Bere Sailerako goren-kargu eta Herrilariak Legebiltzar-Batzordeei argipideak eman diezazkieteneko eskea egin ahal izango dute.”*

Beraz, esandako guztia kontuan hartuta, ondorioztatzen behar dugu Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua eta Jaurlaritzari buruzko 7/1981 Legea direla legebiltzarkideei datuak lagatzeko “baimena” ematen dieten legeak, DBLOren 11.2 a) artikulua xedatutakoaren arabera. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ere gauza bera adierazi du lehenago ere, eta horren adibide dira erakundearen webean argitaratutako hainbat irizpen (CN13-051, CN14-027 eta CN15-012).

II

Eskatutako informazioa legebiltzarkideari lagatzeko lege gaikuntza egon badagoela argi utzi eta gero, ahalmenaren helmena zehaztu behar da, eta zein diren lege gaikuntzaren mugak.

Beraz, hasteko, azpimarratu behar da gobernu-ekintzak kontrolatzeko funtzioa baliatzeko legebiltzarkideen eskubidea ez dela erabatekoa edo mugagabea, kontrakoa baizik, hau da, gainontzeko eskubideak bezala, mugak dituela, bai eta bazterketak ere, nahiz eta modu murriztailean ulertu behar diren.

Gobernuak badu legebiltzarkide batek eskatu dion informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra bertan behera uzteko edo mugatzeko aukera, baldin eta honako arrazoiak badaude tartean: segurtasuna eta defentsa, arbitrariotasuna debekatzea, oinarrizko eskubideak babestea, eskubideaz abusatzeak debekua eta abar. Hau da, Konstituzioak eta gainontzeko lege ordenamenduak botere publikoaren erabilerari ezartzen dizkion printzipio orokorrak dira mugen jatorria.

Horrela, legebiltzarreko informazio eskubideak muga bakarra du: herritarren gainontzeko oinarrizko eskubideak eta askatasunak, hau da, ideologia eta erlijio askatasuna (Konstituzioaren 16.1 artikulua), intimitate pertsonalerako askatasuna (Konstituzioaren 18.1 artikulua), datu pertsonalak babesteko askatasuna (Konstituzioaren 18.4 artikulua) eta Konstituzioaren 20.1 artikuluan aldarrikatutako adierazpen eta komunikazio askatasuna. Konstituzio Auzitegiak horixe adierazi nahi du honakoa esaten duenean: *“Gobernuak parlamentuarekiko duen erantzukizun politikoaren alde egiteko joera du, eta hor sartzan ditu bai botere betearazleak duen informatzeko betebeharra bai ganberak edo ganberek duten informatuta egoteko eskubidea, eta harreman teknika horiek ezin izango dira erabili oinarrizko eskubideak urratzeko”* (60/1981 Autoa).

Kontsulta honetako kasuaren muina da legebiltzarkide batek, Euskal Legebiltzarraren Erregelamendua aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko esparru publikoko langile guztiek 2014an eta 2015eko lehenengo seihilekoan egindako bidaia guztien gaineko informazioa eskatu zuela. Horrez gain, legebiltzarkideak eskatu zuen erantzunean honako informazioa ere azaltzeko: bidaia bakoitzaren gaineko azalpena-arrazoiak, eta bidaia bakoitzean zein pertsonak (kargua-postua barne) hartu zuten parte, iraupena, garraioa eta ostatu mota, eta kostua guztira.

Lege gaikuntza dagoela ikusi da Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikuluan, Jaurilaritzari buruzko Legearen 44. artikuluan eta DBLOren 11.2 a) artikuluan.

Lege gaikuntzak argi uzten du datu pertsonalak daudela esatea ez dela nahikoa arrazoi legebiltzarkideari informazioa emateko betebeharra bertan behera uzteko, azken finean, legebiltzarkidea boterearen kontrol demokratikoa gauzatzen ari da eta.

Hala ere, Konstituzio Auzitegiak esana du norberaren intimitaterako oinarriko eskubideak izan ditzakeen balizko murrizketek honako baldintzak bete behar dituztela: konstituzioan oinarritutako legeren bat izan behar dutela euskarri, proportzionalak izan behar dutela eta zehatz-mehatz adierazi beharko dituztela neurri murriztailearen oinarri material guzti-guztiak (Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaia, 16. lege oinarria; eta martxoaren 23ko 70/2009 Epaia, 3. lege oinarria). Epaia horrexen 11. lege oinarriak dio oinarriko eskubide bat murrizten duen legeak ezin duela oinarriko eskubidea urratu eta *“ezin dituela mugak finkatu eskubidea baliatzea ezinezkoa egiteko moduan edo Konstituzioaren bermea baliogabetzeko moduan”*. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, lege aurreikuspen murriztaileak *“lege izaera”* izan behar du (KAE 49/1999, 5. lege oinarria; KAE 169/2001, 6. lege oinarria eta KAE 184/2003, 2. lege oinarria).

Konstituzio Auzitegiak hainbat aldiz adierazi du *“oinarriko eskubide bat murrizten duen neurri batek proportzionaltasunaren printzipioa hausten duela egiaztatzeko, ondoko hiru eskakizun edo baldintzak betetzen diren ala ez ikusi behar dela: neurri horrekin helburua lortuko ote den (egokitasun irizpena); neurri hori ezinbestekoa ote den eta egiatan ez ote dagoen helburu bera lortzeko beste neurri moderatuagoren bat (premiazkotasunaren irizpena); eta, azkenik, neurritzkoa eta orekatua ote den, interes orokorrari onurak eta abantailak ekarriko dizkiolako, eta abantailak gehiago izango direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balioei ekarri diezazkiekeen kalteak baino (proportzionaltasun irizpena zentzu hertsian)”*. Konstituzio Auzitegiaren Epaia: STC, 1^a, 10.7.2000 (RTC 2000\186; MP).

2013ko urrian Italiako, Portugaleko eta Espainiako konstituzio auzitegiek Erroman egindako bileran Espainiakoak honakoa adierazi zuen:

“Proportzionaltasunaren printzipioaren gainean esan izan da “konstituzionalismo” berriaren ardatza dela, funtsezkoa eta halabeharrezkoa edozein sistema konstituzionaletan, eta konstituzionaltasunaren irizpide unibertsal bat dela; eta irizpide hori erabiltzeak konstituzio auzitegiak duen heldutasuna adierazten du.”

...

“Hain zuzen ere, proportzionaltasunaren irizpidearen helburua da lehian dauden eskubideen, interesen edo balioen arteko liskarrak ebaztea. Proportzionaltasunaren ikuspegiak duen abantaila da liskar horiek ebazteko balio duela liskarrean dauden eskubideen, interesen edo balioen artean, eta modu abstraktuan, hierarkiak sortu beharrik gabe; eta, ondorioz, ez dago aurretik epaitu beharrik horietatik zeinek duen legitimitate gehiago ala gutxiago, ez eta erabateko debekurik ezarri beharrik ere. Proportzionaltasun irizpideak badu berezitasun bat, eta da testuingurua edo kasuaren gaineko inguruabarrak ikusi eta gero finkatzen dela liskarra aztertzeko ikuspegia: salatutako arauak, neurriak edo jarduerak artatzen dituen helburuen legezkotasuna abiapuntutzat hartuta, aztertu behar dena da ea baliagarria den (ea helburua erdiesteko aproposa den), ea beharrezkoa den (ea ez dagoen beste aukeraren bat, erabilitakoa bezain eraginkorra dena,

baina ez hain arazotsua) eta, azkenik, ea "proportzionala" den (babestutako esparru batean egin duen esku sartzea kontuan hartuta) eta ukitutako eskubideei edo interesei eragiten dien kaltea nolakoa eta zenbaterainokoa den. Azterketa horren emaitzak esango du arauak, neurriak edo jarduerak ez direla onargarriak babestutako eskubide edo interes bat alferrik, premiarik gabe eta gehiegizkoa izateagatik modu desorekatuan kaltetzen badute."

Aipatu dugun konstituzio doktrinarekin bat, esan behar dugu Legebiltzarrak boterearen kontrol demokratikoa egin behar duenez, horrek legezatzten duela datu pertsonalak laga ahal izatea, baldin eta eskatzen den informazioa garrantzitsua bada Legebiltzarrak kontrol eginkizuna gauzatzeko, edo beste era batera esanda, garrantzitsua bada Jaurlaritzaren jardunaren berri izateko, jarduna aztertzeke eta jardunari buruzko balorazio kritikoa egiteko. Horrek esan nahi du legebiltzarkideek, kontrol eginkizuna gauzatu behar dutenean, datu-babesaren arloko printzipioak eta bermeak ere bete egin behar dituztela, tartean DBLOren 4. artikuluan xedatutako datuen kalitatearen printzipioa.

DBLOren 4.1 artikulua honakoa xedatzen du:

"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko."

Printzipio horrek arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin.

Bestalde, DBLOren 4. artikuluko 2. idatz-zatiak dio tratatu beharreko datu pertsonalak zein xederekin bildu ziren kontuan hartu eta ezin izango direla erabili xede horrekin bateraezinak diren xedeetarako.

DBLO 4.2 artikulua ikusita, badirudi hasiera batean legebiltzarkideek egiten dituzten informazio eskaerak ez direla arazoitu behar; baina, datu pertsonalak babestearen aldetik begiratuta, komeni da informazio eskabidea zehaztea ahalik eta gehien, hau da, zehaztea zein informazio eskatzen den eta kontrol eginkizuna burutzeko ere behar dela, horrela errazagoa izango delako proportzionaltasunaren gaineko ponderazioa egoki egitea.

Baina, proportzionaltasunaren gaineko ponderazioa edo balorazioa ez da Agentzia honen eginkizuna, Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren eginbeharra baizik. Eta Agentziak egin dezaken gauza bakarra da lagundu erakunde horiei irizpideak emanez, gero erakundeok erabaki egokia har dezaten.

Horri buruz azpimarratu behar den lehenengo gauza da datu pertsonalak modu masiboan eta indiskriminatuan lagatzea, azken finean, kalitatearen edo proportzionaltasunaren irizpideak erabat urratzen duen datu tratamendu bat dela. Datuak Babesteko Euskal Bulegoak askotan esan du hori, eta horren adibide dira web orrian argitaratu dituen irizpen guztiak, adibidez, CN13-027 Irizpena. Bertan dago jasota gai

honi buruzko doktrina konstituzioanala. Konstituzio Auzitegiaren 2013ko urtarrilaren 31ko Epaiak, Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Legearen azken xedapenetatik zarpigarrena aztertzean, argitzeko ea polizia atzerritarren eroldako inskripzioko datuak atzitu ditzakeen, adierazi zuen baietz, atzitu ditzakeela, baina honako bermeak ere ezarri zituen:

*“Lege manua ulertzeko baina, gure doktrinak hau bezalako oinarrizko esku-menari (datu pertsonalak babestea) mugak jartzeko eskatzen dituen proportzionaltasunaren printzipioaren exijentziak ere hartu behar dira kontuan. Horrek esan nahi du lege-manu horrek arautzen duen datu atzipenak dakarren datu lagatzeak nahitaez izan behar dituela berariazko zenbait berme, eta lege-manuak berak aipatzen duen administrazio organoak bete behar dituela; eta, hala ere, argi dago kontrolatu beharrekoak direla. Berme horietako bat da **berariaz arrazoitu eta justifikatu behar direla, batetik, lege-manuak aurreikusten duen eroldako datuetan modu telematikoa sartzeko erabiltzaile izaera, eta, bestetik, sarbide zehatz bakoitza; eta ahal dela lortu iruzurrezko erabilerarik eta sarbide indiskriminatu edo masiborik ez egotea**; hain zuzen ere, erabaki horiek arrazoituta egonez gero, errazagoa delako horiek kontrolatzea lege ordenamenduan jasotako mekanismoen bidez, batez ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzio kontrolaren bidez. Sarbidearen edukiak baditu beste muga batzuk ere lege arruntetan, eta horiek ere ezarri egin beharko dira, baina lege ordenamenduaren batasuna kontuan hartuta. Lege horiek dira, batetik, jada aztertu dugun TAOLen 16.3 artikulua eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren hainbat manu, adibidez, 22.2 artikulua. Beraz, atzipena zilegi izango da baldintza guzti horiek betetzen badira, **dena delako datua garrantzitsua eta beharrezkoa bada atzipenaren oinarrian dagoen helbururako, eta bermatuta badago ea kasu bakoitzean egindako atzipenak legearen babesa izan duen ala ez aztertzeko aukera**; hala ez bada, ezinezkoa izango delako datuen atzipena. Berme horiek betez gero, errekurritutako xedapenak arautzen duen atzipena proportzionala izango da lortu nahi duen helburuarekiko, datua bakar-bakarrik erabili ahal izango denez bertan ezarritako helbururako, atzipea egiteko berariaz gaituta dagoenak une puntual batean bakarrik egin dezakeelako atzipena, eta bakar-bakarrik atzitu ahal izango dituelako beharrezkoak diren datuak, eta beharrezkoak direla berariaz eta modu adierazian arrazoitu bada, hau da, kontrolatzeko moduan egin bada dena (9. oinarri juridikoa).”*

Aipatu dugun doktrina konstituzionalarekin bat, eta legebiltzarkideak egindako informazio eskabideak aztertu eta gero, ikusten dugu eskabide gehienak datu pertsonalen eskabide masiboak eta indiskriminatuak direla, eta eskabideak hobeto arrazoitu ezean, Agentziak uste du ez dutela betetzen nahitaezko proportzionaltasun irizpidea.

III

Aurreko ondorioa argi utzita, segidan gainontzeko zalantzak argitzen saiatuko gara. Beraz, hasteko, azpimarratu nahi dugu legebiltzarkideen informaziorako eskubidea dela herritarrek gai publikoetan parte hartzeko eskubidearen (Konstituzioaren 23. artikulua) adierazpenetako bat, eta zer ikusi zuzena duela Konstituzioaren 105 b) artikulua aldarrikatzen duen administrazioko artxiboak eta erregistroak atzitzeko herritarren eskubidearekin (Administrazio Prozedura Legearen 37. artikuluan dago araututa). Izan ere, bi eskubideak dira botere publikoaren gaineko kontrol demokratikoaren adierazpenak.

Baina, herritarrek jarduera publikoaren gainean egin beharreko kontrolak hainbat muga ditu, eta mugei buruzko oinarritzko arau batzuk ezarri zituzten Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 14. eta 15. artikuluek.

Irizpen honen ondorioetarako, komeni da 15. artikulua dioena hartzea aintzat, datu pertsonalak babesteari buruzkoa delako:

“15. artikulua. Datu pertsonalak babestea

1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 2. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko idatzizko baimena izatea; dena dela, ez da baimen hori behar izango, baldin eta, eskuratzeko eskaera egin baino lehen, eragiten zaion horrek datuak ageri-agerian ezagutzera eman baditu.

Informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 3. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko baimena edukitzea edo lege-mailako arauen baten babesa izatea.

2. Oro har, organoaren antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio-datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interes publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babestutako beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.

3. Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzeko baimenduko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, organoak bereziki kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifiko edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.

c) Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.

d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira”

4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

5. Datu pertsonalak babesteko araudia aplikatu beharko zaio informazioa eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutako datuen tratamenduari”

Muga hori zertan den ondo aztertzeko, kontuan izan behar da Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Kontseiluak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak elkar hartuta egiten ari diren lan eskerga, abenduaren 9ko 19/2013 Legearen bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, Gardentasunari buruzko Legearen 15. artikuluko arauak ezartzeko hainbat irizpide ezarri.

Eta zeregin hori burutzeko, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Kontseiluak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak hainbat irizpen egin dituzte. Kasu honetan, kontsultako gaia ikusita, uste dugu merezi duela aipatzea funtzionarioen ordainsarien datuak atzitzeari buruzko txostena (1/2015 eskabidea-Administrazioaren erreforma egikaritzeko bulegoa).

txosten horretan honako gaiak aztertu zituzten: hainbat lanpostutako ordainsariei buruzko informazioa, lanpostu horietan zeuden pertsonak identifikatzeko balio zuena, funtzionarioen ordainsariak, lanpostu zerrendak (LPZ) eta produktibitate ordainsari osagarriak.

txostenak azaltzen du nola ezarri behar den Gardentasunari buruzko Legearen 15.3 artikulua halako kontuetan, eta txostena egin zuten bi erakundeok ateratzen zuten ondorioa da *“oro har, informazioa eskuratzeko lagungarria bada hobeto jakiteko zein di-*

ren erakundeen antolaketa eta funtzionamendu irizpideak edo baliabideak esleitzeko irizpideak, zilegi izango dela esatea interes publikoa nagusitu egiten zaiela datuak babesteko eskubideari eta intimitateari, Gardentasunari buruzko Legearen baldintzen eta salbuespenen arabera. Eta, kontrara, hau da, informazioa eskuratzea ez bada lagungarria hobeto jakiteko zein diren erakundeen antolaketa eta funtzionamendu irizpideak edo baliabideak esleitzeko irizpideak, halakoetan datuak babesteko eskubidea eta intimitatea nagusituko direla.

Irizpide hori ezarriz gero kontsultan planteatu diguten gaiari, esan behar da erantzukizun handiagoko edo erabakiak hartzeko autonomia handiagoko lanpostuei buruzko informazioa edo nolabaiteko diskrezionalitatearekin betetzen direnak edo lanpostu horien oinarrian konfiantzazko harreman berezia baldin badago, halakoetan arau orokorra izango dela interes publikoak garrantzi handiagoa duela datu babesak eta intimitatea baino. Eta erantzukizun eta autonomia txikiagoko lanpostuak badira edo prozedura arautuen bidez betetzen diren lanpostuak badira edo konfiantzazko harreman berezirik gabekoak badira, halakoetan arau orokorra izango da errespetatu egiten beharko dela datu babesa eta intimitatea.”

Beraz, txostenak langile publikoen hainbat kategoria ezartzen ditu, eta kategorien arabera ezarri beharko da bakoitzaren ordainsariei buruzko informazioaren garrantzia, goitik beherako hurrenkeran, eta beti ere lege batek ezarritako gardentasun helburuarekin lotuta. Goreneko taldean daude zuzendaritza organoen titularrak diren enplegatu publikoak; bigarrenean, aldi baterako langileak, hirugarren kategorian izendapen askeko funtzionarioak, eta, azkenik, laugarren kategorian gainontzeko langile publikoak, hau da, funtzio publikoa arautzen duen legediak ezarritako prozeduren bidez eskuratu dutenak lanpostua. txostenak zera dio laugarren taldeari buruz: *“langile horiei buruzko informazioa garrantzi gutxikoa izango da oro har, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen oinarrian dauden helburuak lortzeko; beraz, gardentasun-helburua ez da nahikoa arrazoiak izango langile publikoen datu pertsonalak babesteko eskubidea murrizteko. Beraz, kolektibo horri dagokionez, Gardentasunari buruko Legearen 15.3 artikuluan xedatutako ponderazioak informazio hori ukatzearen alde egingo du orokorrean.”*

Guzti horregatik, eta nahiz eta informazioa jasotzeko legebiltzarkideek duten eskubidea babestuago egon gainontzeko herritarren eskubide orokorra baino, uste dugu Gardentasunari buruzko Legeak oinarrizko izaerarekin ezarritako lege araubideak, bereziki 15. artikulua (informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta pribatutasuna babesteko eskubidea bateratzeko ponderazio irizpideak ezarriz) ematen dizkiela, Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Kontseiluak eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziak elkarrekin egindako txostenekin batera (irizpideok nola ezarri behar diren azalduz), gaur egun Eusko Legebiltzarrari eta Jaurlaritzari euren arteko harreman esparruan datu pertsonalen tratamenduen helmena zehazteko parametroak.

Edozelan ere, beste aukera bat izan daiteke informazioa disoziatuta bidaltzea, baldin eta balio badu legebiltzarkideak lor dezan kontrol eginkizuna burutzea, eta baldin eta aukera ematen badio, hala badagokio, langile publiko jakin batzuen bidaiei buruzko

informazio indibidualizatua eskatzeko, beti ere informazioa ezinbestekoa bada kontrol publikoa burutzeko.

Azkenik, garrantzitsua da gogoratzea kontsultan aipatzen diren datu pertsonalen tratamenduak Legebiltzarraren kontrol eginkizuna ez den beste helburu baterako erabiltzeko, datuen titularren adostasuna beharko dela edo lege mailako arau baten baime-na, hala xedatzen baitu DBLOren 11. artikuluko araubide orokorrak.

Legebiltzarkide bati mediku-parteari lagatzea

Data: 2015-08-24

CN15-012

EUSKO JAURLARITZAKO [...] SAILARI EGIN DION INFORMAZIO ESKABIDE BATEA DATU PERTSONALAK BABESTEAREN ARLOKO ARAUDIAREN ARABERAKO DEN GALDETUZ LEGEBILTZARKIDE BATEK EGINDAKO KONTSULTAREN GAI-NEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015eko uztailaren 9an legebiltzarkide batek mezu elektronikoko bidez bidalitako kontsulta bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Legebiltzarkideak jakin nahi zuen zer uste duen Agentziak [...] Sailari egindako informazio eskabide bati buruz. Eskabidea uztailaren 15ean jaso genuen postaz.

Kontsultako galdera da ea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera den [...] Sailak egindako jakinarazpena, [...] mediku parteari emateko eskabidea dela-eta.

Kontsulta erantzuteko, gaiari buruz bidalitako aurrekariak aipatu behar ditugu nahitaez:

- 2015eko maiatzaren 19an kontsulta egin duen legebiltzarkideak [...] Sailari zuzendutako eskabide-idazki bat aurkeztu zuen Legebiltzarreko Mahaian, eta honako eskatu zuen: “[...] mediku parteari kopia, behar bezala bermatuz Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeak ezartzen dituen betekizunak betetzen direla.”
- 2015eko ekainaren 23an [...] sailburuak erantzun egin zion eskakizunari, eta erantzun zuen ez zela bidezkoa eskatutako lesioen mediku parteari bidaltzea. Ukatzeko arrazoia izan da DBLOren 7.3 artikulua, artikulua horrek dioelako halako datu tratamenduak egiteko lege batek agindu behar duela edo ukituak berriazko adostasuna adierazi behar duela. [...]”
- 2015eko uztailaren 1ean, ikusita [...] Sailaren ezezkia, legebiltzarkideak Eusko Legebiltzarreko Mahaian babesa eskatu zuen, eta honako arrazoiak eman zituen: Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua arabera, bazegoela datu horiek eskatzeko lege-gaikuntza; datu horiek eskatzea zentzuzkoa eta proportzionala dela, bere ustez funtsezkoak direlako [...] Sailaren bertsioa datu objektiboekin eratzeko; eta, azkenik, hasierako eskabidean DBLOk ezarritako baldintzak bete behar direla ere adierazi zuela eta horrekin esan nahi zuela informazioa eman aurretik disoziatu egin behar zela, hau da, [...] izen-abizenak ezabatu.

- Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren 2015eko uztailaren 7ko bileran honako era baki zen:

“Legebiltzarreko Mahaiak erabaki du ez babestea eskabidea, Jaurlaritzaren erantzuna egokia delako. Lehenengo presidenteordearen aurkako botoarekin hartu zen erabakia.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

GOGOETA JURIDIKOAK

I

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 2.1 artikulua zera xedatzen du: *“Lege organiko hau aplikatuko zaie euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta sektore publiko zein pribatuak datu horien gainean gerogarrenean egin dezakeen erabilera-modalitate orori ere.”* Eta 3 a) artikulua dio zer den datu pertsonala: *“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarrii buruzko edozein informazio.”*

Datu pertsonalaren kontzeptu horri kontrajarrita dago datu disoziatuaren kontzeptua. DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak dio datu disoziatua dela *“tartean dena edo interesatua nor den jakiteko aukerarik eskaintzen ez duena.”* Beraz, datu disoziatuak ez dira pertsona identifikagarrii buruzko datuak. Erregelamenduko 5.1 o) artikulua dio zer den pertsona identifikagarria: *“Bere nortasun fisikoari, fisiologikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko edozein informazioren bidez zuzenean edo zeharka identifika daitekeen pertsona oro. Pertsona fisiko bat ez da identifikatzeko modukotzat joko baldin eta identifikatzeko proportzioz gaindiko epeak edo jarduerak behar badira.”*

Laburbilduta, datu tratamendua datu disoziatuei buruzkoa bada, horrek esan nahi du datu horiekin ezinezkoa dela ukitua edo ukituak identifikatzea, eta, beraz, ez direla datu pertsonalak. Ondorioz, ez gaude 15/1999 Lege Organikoaren 2.1 artikuluan deskribatutako esparruan.

Zentzu horretan DBLOren 11.6 artikulua honakoa xedatzen du datu komunikazioari edo datu lagatzeari dagokionez: *“Komunikazioa egiten bada aurretiaz disoziazio-prozedura gauzatuta, ez da aplikatuko aurreko idatz-zatietan ezarritakoa.”*

Bidali diguten idazkiak dioenez, kontsulta egin duen legebiltzarkideak [...] horien mediku parteen informazio agregatua besterik ez du behar. Kasu honetan ez da datu pertsonalak babesteari buruzko araudia ezarri behar, komunikatu eta tratatu beharreko informazioa informazio disoziatua delako, eta, informazio horrek ez duelako datu pertsonalik. Beraz, horretarako, egin behar dena da datu pertsonalei atzera bueltarik gabeko disoziazio prozedura bat ezarri, hau da, pertsonen identitatea betiko geratzen da datu pertsonaletatik bereizita. Zentzu horretan, komeni da gogoratzea kodetutako edo enkriptatutako datuak ez direla datu anonimoak izango, baldin eta baten batek deskodetu edo desenkriptatu ahal baditu ahalegin handiegirik gabe. Datu pertsonalak behar bezala anonimizatuta egoteko, ezinezkoa izan behar da zuzenean edo zeharka datuen titularrak identifikatzea.

Hori argi utzita, Agentziak ikusten du informazio eskabidea testuinguru berezian egin dela, hau da, botere legegilearen eta botere betearazlearen arteko harremanen esparruan. Hobeto esanda, parlamentuak gobernua kontrolatzeko eginkizuna baliatzeko egin da. Testuingurua ikusita, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egin dezakeen gauza bakarra da irizpideak eman ondo ezkondu daitezten legebiltzarkideek duten eskubidea, haien eginkizuna burutzeko behar duten informazioa eskuratzeko, eta Konstituzioaren 18.4 artikulutik eratorritako pertsonen pribatutasunerako oinarrizko eskubidea. Baina, Legebiltzarrak berak baloratu behar du ea bat datorren ala ez [...] Sailaren erabakiarekin, Agentziak ezin baitu hori erabaki; eta kasu honetan Eusko Legebiltzarrak jadanik erabaki du [...] Sailak emandako informazioa nahikoa dela aztertu dugun kasuan gobernu kontrolatzeko eginkizuna burutzeko.

II

Esandako guztia alde batera utzita, Agentziak uste du komeni dela gogoeta labur batzuk egitea datu pertsonalak komunikatzea edo lagatzeari buruz eta osasun datuek behar duten babes bereziari buruz.

DBLOk dio datuak lagatzea dela “interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea” (DBLOren 3 i) artikulua).

Datu lagatzei edo datu komunikazioei buruzko erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago araututa. Lege manu horrek agintzen du datuak hirugarren bati komunika dakizkiokeela soil-soilik datu-lagatzailearen eta datu-hartzailearen eginkizun legitimoekin zuzeneko lotura duten xedeak betetzeko, eta arau orokorra dela interesdunak aurretiaz horren inguruko adostasuna ematea.

Hala ere, DBLOren artikulua horrek berak dio arau orokor horrek hainbat salbuespen dituela. Horietako bat da a) idatz-zatian jasota dagoena:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Irizpen honi dagokionez, esan behar da datuak babesteko agintaritzek jadanik aztertu dutela Estatuko parlamentuetako edo parlamentu autonomikoetako erregelamenduak lege mailako arauak direla ikuspuntu materialetik; eta, beraz, DBLOren 11.2 a) artikulua ezartzeko gaikuntza ematen dutela. Euskadiren kasuan, kontsulta-egileak ondo dioenez, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 11.1 artikuluan dago lege gaikuntza (Erregelamendua 2008ko abenduaren 23an onartu zen eta 2008ko abenduaren 29an argitaratu zen Eusko Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean). Hona:

“Legebiltzarkideek, beren eginkizunak modurik eraginkorrean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkiete Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta enpresa publikoei. Eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da.”

Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 44. artikulua osatu egiten du artikulua horrek dioena, eta legeztatu egiten dute izaera orokorrekin Jaurilaritzak legebiltzarkideei datu pertsonalak lagatzea, legebiltzarkideek exekutiboa kontrolatzeko eginkizunak burutu ahal izateko, baldin eta datu horiek tratatzea funtsezkoa bada kontrol eginkizunerako.

Baina, baieztapen hori gehiago zehaztu behar da osasun datuak bildu behar badira, DBLOk babes berezia ematen dielako osasun datuei.

“Osasun datuak” edo “osasunari buruzko datuak” edo “osasunarekin zer ikusia duten datuak”; era batean edo bestean deitu, zer diren definitzen du DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1.g) artikulua: *“Pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa.”*

Osasun datuak datu intimoak dira, pertsonaren duintasunari lotuta daude eta potentzialki oso diskriminatzaileak; eta, horregatik, osasun datuek babes berezia dute.

Zentzu horretan aipatzekoa da Europako Kontseiluaren 1981eko urtarrilaren 28ko 108 zenbakiko Hitzarmenak 6. artikuluan dioena:

“Arraza, iritzi politikoak, erlijio sinismenak edo filosofikoak, sindikatu afiliazioa agerian uzten duten datu pertsonalak eta osasunari edo bizitza sexualari buruzko datu pertsonalen tratamendua ezin izango dira modu automatikoan tratatu, barruko zuzenbideak ez baditu berme egokiak aurreikusten.”

Eta 1997ko apirilaren 4an Oviedon egin zen “Biologiaren eta medikuntzaren aplikazioei dagokienez, giza eskubideak eta giza duintasuna babesteko Hitzarmena” ere

aipatzeko modua da (1999ko uztailaren 23ko Tresnaren bidez berretsia; 1999ko urriaren 20ko 251 zk. BOE). Hitzarmenaren 5. artikulua xedatzen duen arau orokorrak dioelako ukitutako pertsonaren adostasun informatua beharko dela osasunaren esparruan esku hartzeak egiteko.

Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 24ko 95/46/CE Zuzentarauaren 8.1 artikulua ere ekarri behar dugu hona. Zuzentaru hau datu pertsonalen tratamenduaren arloan pertsona fisikoak babesteari buruzkoa eta datu horien zirkulazio libreaki buruzkoa da, eta honakoa xedatzen du:

“Estatu kideek debekatu egingo dute arraza, iritzi politikoak, erlijio sinesmenak edo iritzi filosofikoak eta sindikatu afiliazioa agerian uzten dituzten datu pertsonalen eta osasunari edo bizitza sexualari buruzko datu pertsonalen tratamenduak.”

Nazioarteko eta Batasuneko arauak osasun datuei ematen dieten babes berezia DBLOn islatu da; izan ere, berariazko lege erregimena finkatzen baitu 7. artikuluko 3. idatz-zatiak:

“Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori” (Guk azpimarratu dugu).

Hala ere, datuak babesteko eskubidea ez da erabateko eskubidea. Horregatik, DBLOren 7.6 artikulua hainbat salbuespen finkatzen ditu, datu sentisibleak ez daitezela tratatu. Artikulu horren arabera, osasun datuak tratatu ahal izango dira *“datu horiek tratatzea beharrezkoa denean prebentziorako edo medikuaren diagnostikorako, osasun-laguntza emateko edo tratamendu medikoentzat edo osasun-zerbitzuak kudeatzeko, baldin eta datu horiek tratatzen baditu lanbide-isiltasuna duen osasun-arloko profesional batek, edo lanbide-isiltasunaren pareko betebeharrak duen beste pertsonaren batek.”*

95/46/CE Zuzentaruako 29. artikuluko Lan Taldeak sortutako WP131 dokumentuak honakoa dio DBLOren 7.6 artikuluan xedatutakoari buruz: *“Zuzentarauaren 8. artikuluko 3. idatz-zatiak -DBLOren 7.6 artikulua bidez egin zen horren transposizioa- datu sentisibleak ezin direla tratatu dioen debeku orokorraren salbuespen bat finkatzen badu ere, oso modu murriztailean ulertu behar da salbuespena.”* Era berean honakoa dio:

“Salbuespen horrek prebentzio izaerako, izaera terapeutikoko eta susperaldi izaerako osasun zerbitzuak emateko berariazko asmoa duten datu pertsonaletarako bakarrik balio du, eta osasun zerbitzu horien kudeaketarako, adibidez: fakturazioa, kontabilitatea edo estatistikak. Ez ditu estaltzen zerbitzu horiek zuzenean emateko beharrezkoak ez diren geroko tratamenduak, esate baterako,

ikerketa medikua, gastu itzulketak gaixotasun aseguruak izateagatik edo diru-saketak aurkeztea. Osasun publikoaren eta babes sozialaren esparruko hainbat tratamendu ere 8. artikuluko 3. idatz-zatiaren helmenetik kanpo daude, batez ere, kalitatearen eta errentagarritasunaren bermeari buruzkoak, eta gaixotasun-aseguruaren erregimenean prestazio eta zerbitzu eskaeren erreklamazioak ebazteko prozedurak ere bai; (...).”

Bestalde, DBLOren 8. artikulua zera dio osasun asistentziaren esparruari dagokionez: *“Lagapenaren inguruan 11. artikulua xedatutakoa gorabehera, erakunde eta osasun-zentro publiko zein pribatuek eta kasuan kasuko profesionalek eurengana jotzen duten pertsonen edo eurek tratatu behar dituzten pertsonen osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak trata ditzakete, estatuko edo kasuan kasuko autonomia-erkidegoko osasunari buruzko legerian xedatutakoaren arabera.”*

15/1999 Lege Organikoa garatzen duen Erregelamenduaren 10.5 artikulua ere honakoa dio: *“ez da beharrezkoa izango interesatuak baimena ematea, osasunarekin zerkusua duten datu pertsonalak komunikatzeko Osasunaren Sistema Nazionala osatzen duten erakunde, zentro eta zerbitzuen artean, eta hori baita baliabide elektronikoen bidez ere, betiere datu horiek pertsonen osasun arloko arreta eskaintzeko ematen badira; hori guztia Osasunaren Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen V. kapituluaren xedatutakoaz bat egin beharko da.”*

Azkenik, Lege Organikoaren 11.2 f) artikulua ere dio zilegi dela osasunarekin lotutako zenbait datu lagatzea *“Osasunari buruzko izaera pertsonaleko datuak lagatzea beharrezkoa denean, fitxategira jotzea eskatzen duen larrialdiari aurre egiteko edo ikerketa epidemiologikoak egiteko, estatuko zein autonomia-erkidegoetako osasunari buruzko legerian ezarritakoaren arabera.”*

Aurreko guztia ikusita, esan daiteke DBLOk araubide berezia ezartzen duela osasun datuak tratatzeko, eta, ukituek ez badute adostasunik adierazi, bakar-bakarrik tratatu ahal izango direla arloko legediak edo izaera orokorreko legeek, interes orokorraren izenean, aurreikusitako kasuetan.

Agentziak CN13-051 Irizpenean aztertu zuen legebiltzarkideek nola tratatu behar dituzten osasun datuak Jaurilaritza kontrolatzeko eginkizuna ondo burutzeko. Irizpena Agentziaren web gunean dago argitaratuta, eta, han esandakoa berresten dugu, gauza bera berriro ez errepikatzeagatik.

Hala eta guztiz ere, behin eta berriz esan beharrean gaude zorrotz bete behar dela DBLOren 4. artikulua xedatzen duen datuen kalitatearen printzipioa; eta, beraz, **bakar-bakarrik bildu eta tratatu ahal izango direla Jaurilaritza kontrolatzeko eginkizuna behar bezala gauzatzeko ezinbestekoak diren datu pertsonalak, Konstituzioaren 18.4 artikulutik datorren autodeterminazio informatiborako pertsonen oinarrizko eskubidea urratu gabe.**

Legebiltzarkide bati lagatzea administrazioaren eraikin bateko segurtasun sistemak grabatutako irudiak

Data: 2014-07-22

CN14-027

LEGEBILTZARKIDE BATEK EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDE BATEN ONDORIOZ [...] SEGURTASUN KAMERAKO GRABAZIO BAT IKUSTEA EA DATU BABESAREN ARAUDIAREN ARABERAKOA DEN ARGITZEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014ko uztailaren 14an Jaurilaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Idazkiak zioen legebiltzarkide batek [...] grabazioak eskatu dituela, eta legebiltzarkidea grabazioak ikustera joango dela aholkulari batekin, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 11.3 artikulua xedatzen duenaren arabera.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea zer egin daitekeen bateragarriak izateko kasu zehatz honetan bi eskubide hauek: batetik, legebiltzarkideak eta, halakorik egonez gero, Legebiltzarrean behar bezala egiaztatutako aholkulariak, Legebiltzarreko informazio eta kontrol eginkizunak burutzeko, irudi horiek ikusteko duten eskubidea, eta, bestetik, ikusi behar dituzten segurtasun kameretako grabazioetan ageri diren pertsonen datu pertsonalak babesteko eskubidea.

Hasteko, uste dugu argi utzi behar dela irudiak datu pertsonalak direla, hala xedatzen baitute Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 3. artikulua (aurrerantzean DBLO) eta DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 f) artikulua. Azken horrek dio informazio grafikoa edo fotografikoa datu pertsonala dela.

3. artikuluko c) idatz-zatiak xedatzen du zer den datu tratamendua: *“Automatizatutako edo automatizatu gabeko eragiketa eta prozedura teknikoak, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik ateratako datuak biltzea, grabatzea, gordetzea, prestatzea, eraldatzea, blokeatzea, ezerezte eta lagatzea ahalbidetzen dutenak.”* Beraz, irudiekin egiten diren tratamendu (grabazioa egitea, biltzea, lagatzea eta abar) guztiek datu babesaren arloko oinarriko printzipioak bete behar dituzte.

Interesduna ez den beste pertsona bati interesdunaren datuak lagatzea datu lagapena da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) arabera.

Datu lagatzeen lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta artikulua dio datuak lagatzeko arau orokorra dela interesdunak adostasuna agertzea (11.1 artikulua). Hala ere, arau orokorrak salbuespen batzuk ditu, eta 2. idatz-zatian daude. Kasu honetan a) letran ezarritakoak du garrantzia:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, aztertu beharko dugu ea ba ote dagoen nahikoa lege gaikuntza ukituaren adostasunik gabe datuak laga ahal izateko.

Gure CN13-051 irizpenean zorrotz aztertu genituen legebiltzarkideen eginkizunak eta legebiltzarkideen eskubideak eta prerrogatibak; eta egiaztatu genuen Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua administrazioei, erakundeei, organismoiei eta enpresei datuak, txostenak eta dokumentuak eskatzeko behar adina ahal aitortzen diela legebiltzarkideei.

Beraz, esan behar dugu Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua baduela nahikoa lege gaikuntza, eta, ondorioz, DBLOren 11.2 a) artikuluan ezarritako salbuespena ezar daitekeela, ukituaren adostasuna ez eskatzeko. Eta hala dela uste dute datu babesaren esparruko beste kontrol agintari batzuk ere, dena delako autonomia erkidegoetako legebiltzarrek bertako gobernuari egindako eskaerak aztertzean.

II

Eskatutako informazioa lagatzeko lege gaikuntza badagoela egiaztatu eta gero, falta da zehaztea ea gaikuntza zenbaterainokoa den eta ea mugarik duen, izan ere, datu pertsonalak daudela esateak (kasu honetan irudiak dira) ez dio indarririk kentzen Legebiltzarrari informazioa emateko betebeharrari.

Aztertzen ari garen kasuan ez da azaldu zergatik egin duen eskaera hau legebiltzarkideak, baina [...]-(e)k esandakoaren arabera, badirudi segurtasun kameren grabazioak legebiltzarkidearen eskura daudela, nahi duenean ikus ditzan.

Bidali diguten kontsulta-idazkiak dio eskatutako informazioa sentsiblea denez, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11.3 artikulua ezarriko dela eta legebiltzarkidearekin batera arlo horretan aditua den pertsona bat ere joango dela ikustera, Legebiltzarrean behar bezala egiaztatuta dagoena, grabazioak ikusteko eskabidea egin duen legebiltzarkidearen legebiltzar taldeko aholkulari moduan.

Agentziak ez daki zer jotzen duen [...]-(e)k “informazio sentsibletzat”; baina datu pertsonalak babesteko esparruan irudiak ez dira bereziki babestutako datutzat edo datu “sentsibletzat” jotzen.

Datu sentsibleak DBLOren 7.2 eta 7.3 artikuluan daude araututa:

“2. Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio eta sinesmenaren berri ematen duten datu pertsonalak ukituaren esanbidezko eta idatzizko adostasunarekin bakarrik trata daitezke. Horren salbuespen dira politika-, filosofia-, erlijio- edo sindikatu-izaerako xedea duten alderdi politikoan, sindikatuen, konfesio edo erkidego erlijiosoen eta elkarteetan, fundazioen nahiz irabazteko asmorik gabeko beste entitate batzuen fitxategiak, euren kideen inguruko datuei dagokienez; hala ere, datu horiek laga daitezzen ukituak aurretiaz emandako adostasuna behar da beti.

3. Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Araudiak modu berezian tratatzen ditu bereziki babestutako datuak, eta, beraz, datu horiek tratatzeko ezin da ezarri DBLOren 11.2 a) eta e) artikuluetan finkatutakoa, ondorioz, halako datuak tratatzeko, 7. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu beharko da.

Ideologiari, erlijioari eta sinesmenei buruzko datuak badira (Konstituzioaren 16.2 artikulua), DBLOren 7.2 artikulua oso ondo finkatzen ditu Konstituzioaren mugak.

Arrazari, osasunari eta bizitza sexualari buruzko datuak badira, lege batek berariaz baimentzen baditu baino ezingo dira egin tratamenduak, eta legeak ematen duen gaikuntzaren oinarrian interes orokorreko arrazoiak egon beharko dira (DBLOren 7.3

artikuluak); eta, horretaz gain, DBLOren 8. eta 11.2 f) artikuluetan aurreikusitako kasuak izan beharko dira.

Esan behar dugu DBLOren 7.3 artikulua bereziki babesten dituen datuen tratamenduetarako, kontrol agintaritzek argi adierazten dutela datu tratamenduaren oinarrian dagoen helburu bera izan behar dutela; beraz, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ezin izango dira tratatu (DBLOren 4. artikuluan xedatuta dagoen datuen kalitatearen printzipioa).

Printzipio orokor horrek arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin. Oinarritzko eskubidea interes publikoaren edo orokorraren menpe jarritz gero, eskubideari egiten zaion murrizketa beharrezkoa izan beharko da aurreikusitako legezko helburua lortzeko, proportzionala ere bai, eta murrizten den oinarritzko eskubidearen funtsezko edukia errespetatu behar du behintzat (18/1999 KAE).

Baina, horrez gain, zilegi da, kalitatearen printzipioarekin bat, kontuan hartzea informazioa modu disoziatuan emateko aukera ere badagoela, hau da, prozesuan parte hartu duten pertsonen datu identifikatiboak kenduta ematea, hala jakatuta helburua lortzen bada behintzat.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta informazio eskabideak betetzen baditu Autonomia Estatutua garatuz Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduan finkatutako baldintzak, eta datuak erabiltzen badira bi arau horiek Legebiltzarrari esleitzen dioten kontrol eginkizunarekin lortutako helburuetarako bakarrik, esan behar da kontsulta honetan aztertzen ari garen eskabideak aipatzen duen datu-lagatzeak baduela 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua babesa. Baina, beti ere alde batera utzi gabe datuen eta helburuen arteko proportzionaltasuna, eta fitxategiaren arduradunari aginduta datu eskaeraren helburua betetzeko behar diren datuak bakarrik emateko, behar beharrezkoak direnak bakarrik.

Helburutasun printzipioak garrantzi handia du eta kontuan hartu beharrekoa da erabakitzeke ea legebiltzarkideak egindako eskabidea eta eskubidearen helburua asebetetzeko nahitaezkoa den irudiak ikustea ala ez. Hain zuzen ere, ikusten diren irudiek ez badute zer ikusirik legebiltzarkideak lortu nahi duen helburuarekin, gehiegizko datu tratamendutzat joko da, eta legeak debekatu egiten du hori. Eta kontrara, irudiak ikustea legezkoa izango da Legebiltzarrari esleitutako eginkizunak burutzeko aurkeztu duten eskabidean jasotako helburua lortzeko moduan egiten bada.

Esanak esan, eman beharreko informazioaren proportzionaltasunaren gaineko balorazioa egitea ez dagokio Agentziari, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduen 11.4 artikulua xedatzen duenez:

“Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumenta-

zioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat dato-rrera adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arrazoiak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlari-tzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman behar-ko dio hurrengo osoko bilkuran.”

Artikulu horrek dioenez, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiarekin adostuta, baloratuko du (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpideak kontuan hartuta, egoki irizten badio) ea ados dauden ala ez [...]-(r)en erabakiarekin; eta Agentziak ezin du esku hartu Legebiltzarreko bi erakunde horien eginkizunetan, erabaki egokia hartzeko irizpideak ematea baino ez baitagokio Agentziari.

Azkenik, ezin dugu esan gabe utzi Eusko Jaurlaritzari egindako informazio eskaerekin gerora egiten diren tratamenduek ere berdin-berdin bete beharko dutela datu babesaren arloko araudia; eta, beraz, ezin izango dela egin lege babesik ez duen tratamendurik. Horrek esan nahi du Legebiltzarrak eta legebiltzarkide eskatzaileak jakin behar dutela ez dutela datuak beste ezertarako erabiltzeko baimenik, eta, beraz, horiei dagokienez, datu tratamenduei, datu lagatzei edo beste edozein erabilerei buruzko lege aurreikuspenak ezarriko direla oso-osorik.

Lan kontratazioko espediente bat legebiltzarkide bati lagatzea

Data: 2014-01-21

CN13-051

LEGEBILTZARKIDE BATEK EGINDAKO INFORMAZIO ESKABIDE BATEN ONDORIOZ EUSKO JAURLARITZAK ESPEDIENTE OSO BAT LAGATZEA EA DATU BABSAREN ARAUDIAREN ARABERAKOA DEN ARGITZEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2014 abenduaren 4an Eusko Legebiltzarrak helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Idazkiak zioen legebiltzarkide batek Eusko Legebiltzarreko Mahaiari babesa eskatu ziola [...] kontratazio espedienteari buruz Jaurlaritzari egin zion informazio eskaera zela-eta Jaurlaritzak emandako erantzunagatik; eta Mahaiak 2013ko azaroaren 26an egin zuen bileran erabaki zuela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari horren gaineko kontsulta bat egitea.

Legebiltzarreko ekimenaren espediente osoa helarazi zuten, eta honako dokumentuak ere bai:

- Legebiltzarkideak Eusko Jaurlaritzako sailburuari egindako hasierako informazio eskaeraren kopia bat.
- Sailburuaren erantzunaren kopia bat.
- Eusko Jaurlaritzak emandako erantzunaren aurrean, Eusko Legebiltzarreko Mahaiari egindako babes eskaeraren kopia bat.

Eusko Legebiltzarrak helarazi zigun idazkiak honakoa ere xedatzen du:

“Kontsultak aipatzen du Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoak duen eragina Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren arteko harreman esparruan, hau da, ea Legebiltzarreko erregelamendua ezin den datu lagatzeak baimentzeko besteko arau orokor eta baliogarritzat jo [11.2 a) artikulua]; ea zein izan daitekeen informazioa emateko modua, datu pribatuak behar bezala babestuta; eta ea Agentziak auzi honetan zer jotzen duen garrantzitsutzat.

Azkenik, komeni da aipatzea Jaurlaritzatik jasotzen den dokumentazioa Legebiltzarreko talde guztien artean banatzen dela eta ez bakarrik eskatu duenari.”

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea oinarrizko eskubidearekin bat datorren legebiltzarkide batek Eusko Jaurlaritzari eskatutako dokumentazioa atzitzea. Zehatz esateko, pertsona baten lan kontratazioaren espedientea eskatu zen.

Interesduna ez den beste pertsona bati interesdunaren datuak lagatzea datu lagapena da, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) arabera.

Datu lagatzeen lege erregimena DBLOren 11. artikuluan dago jasota, eta artikulua dio datuak lagatzeko arau orokorra dela interesdunak adostasuna agertzea (11.1 artikulua). Hala ere, arau orokorrak salbuespen batzuk ditu, eta 2. idatz-zatian daude. Kasu honetan a) letran ezarritakoak du garrantzia:

“Lege batek baimentzen badu lagapena.”

Beraz, aztertu behar dugu ea ba ote dagoen nahikoa lege gaikuntza ukituaren adostasunik gabe datuak laga ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuari buruzko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren II. Tituluak EAEko botereak arautzen ditu, era I. Kapituluak Eusko Legebiltzarrari buruzkoa da, eta 25. artikulua Legebiltzarren eginkizunak arautzen ditu:

“25. artikulua.

1. Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.”

Eusko Legebiltzarraren erregelamenduari buruzko aipamena 27.1 artikuluan dago:

“27. artikulua.

1. Legebiltzarrak legebiltzarburua, Mahaia eta Batzorde Iraunkorra hautatuko ditu bere kideen artean. Osoko Bilkuratan eta Batzordetan jardungo du.

Legebiltzarrak berak finkatuko du bere barne-araudia, eta legebiltzarkideen gehiengo osoz onartu beharko da.”

Konstituzioaren 72.1 artikulua ere antzeko zerbait dio Gorte Nagusiei buruz:

“72. artikulua.

1. Ganberak beren araudiak ezartzen dituzte; euren aurrekontuak autonomiaz onesten dituzte; eta, bi-bion adostasunez, Gorte Nagusietako Langileen Estatutua ematen dute. Araudiei eta horien eraldaketari dagokionez, azken botazioa egingo da haien osotasunari buruz, eta, botazio horretan, erabateko gehiengo hartu beharko da.”

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren I. Tituluko III. Kapituluak (legebiltzarkideen estatutuari buruzkoa da) 10. artikulutik 16. artikulura bitartean arautzen ditu legebiltzarkideen eskubideak eta abantailak. Gure auziari dagokionez, 11. artikuluan jarri behar dugu arreta:

“11. artikulua.

1. “Legebiltzarkideek, beren eginkizunak modurik eraginkorrean betetzeko, dituzten datuak, txostenak eta dokumentazioa eskatu ahal izango dizkiete Autonomia Erkidegoko administrazio publikoei, instituzioei, erakunde publikoei eta enpresa publikoei. Eskaera egitean, legebiltzarkidearen taldeak eskaeraren berri baduela adieraziko da.”

2. Eskaera, betiere, lehendakariaren bidez zuzenduko zaio dagokion administrazioari. Administrazioak 20 eguneko epea izango du, gehienez, eskaera betetzeko edo, bete ezin badu, epe berean, horretarako dituen arrazoiak idazki batean azaltzeko.

3. Eskatutako dokumentazioaren izaeragatik edo indarrean dauden arauengatik ezin baldin bada dokumentazioaren kopiairik bidali, Administrazioak, horren orde, administrazio-egoitzetara sartzeko aukera eman ahal izango dio legebiltzarkideari. Halakoetan, legebiltzarkideak egoki irizitako oharra hartu ahal izango ditu, eta orobat dokumentuen kopiai eskuratu ere.

Eskatzen diren dokumentuak teknikoki oso konplexuak direnean, aztergaiari adituak diren laguntzaileak eraman ahal izango ditu legebiltzarkideak, betiere Legebiltzarrean egiaztatuta badago legebiltzarkidearen legebiltzar-taldearen aholkulari direla.

4. Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikuluko honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlearitzaren erabakiarekin bat datorrela adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arazoak azalduz, edo Jaurlearitzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlearitzari. Jaurlearitzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman beharko dio hurrengo osoko bilkuran.

5. Era berean, Euskal Herriari era batera edo bestera eragiten diola uste duten informazio oro eskatu ahal izango diete legebiltzarkideek Estatuko Administrazioari eta autonomia-erkidegoetako gobernu-organoei, bai eta Europar Batasuneko instituzioei ere. Eskaera Legebiltzarreko lehendakariaren bidez eta legeetan aurreikusitakoari jarraituz egingo da.

6. Legebiltzarkideek orobat, beren egitekoak bete ditzaten, beharrezko informazio eta dokumentazioa jasotzeko eskubidea dute, zuzenean Legebiltzarretik edo beren legebiltzar-taldearen bitartez. Eskatutakoa emateko betebeharra dute kasuan kasuko zerbitzuek.”

Artikulu horrek administrazioei, erakundeei, organismoei eta enpresei datuak, txostenak eta dokumentuak eskatzeko behar beste ahal aitortzen die legebiltzarkideei. Baina, legebiltzarren erregelamendua denez, eta ez denez lege bat, ez dago argi arau hori nahikoa den datu lagatzea legezkoa izateko.

Merezi du hona ekartzea Gorte Nagusietako letratu den Manuel Alba Navarrok Konstituzioaren 72. artikulua gainean egindako oharra. Oharra Diputatuen Kongresuaren web orrian argitaratu zuten eta honakoa dio: *“Parlamentuko Erregelamendua ezin da parekatu Konstituzioaren 97. artikuluren babespean Gobernuak emandako legeekin, nahiz eta erregelamendu deitu tradizioz. Izan ere, Konstituzioari zuzen-zuzenean lotuta dagoen (KAE 101/1983) arau primarioa baita, eta horregatik lege balioa du, nahiz eta legearen berezko indarririk ez izan (KAE 119/1990) eta KAE 226/2004, 227/2004 eta KAE 301/2005). Hori dela eta, Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren kontrako deklarazioez (Konstituzio Auzitegiari buruzko Lege Organikoaren 27.2 d) artikulua eta Konstituzio Auzitegiaren 44/1995, 177/2002, 234/2000 eta 101/2008 epaiak), nahiz eta arau guztiak ez izan konstituzionaltasunaren blokekoak (KAE 36/1990).”*

Bestalde, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 20ko 118/1988 Epaiaren hirugarren lege oinarriak zera dio:

“Parlamentuetako erregelamenduak lege-indarreko lege eta arauen pare jar-tzeak erregelamenduak zuzenean eta erabat inpugnatzeko aukera ematen du, bai eta bere konstituzionaltasuna kontrolatzeko aukera ere, konstituziokontra-ktasun errekurtsoren bidez.”

Ebazpenak zein argiak diren ikusita, pentsatu behar dugu Eusko Legebiltzarreko Erre-gelamenduak ere baduela nahikoa lege gaikuntza, eta, beraz, DBLOren 11.2 a) arti-kuluan ezarritako salbuespena ezar daitekeela, ukituaren adostasuna ez eskatzeko. Eta hala dela uste dute datu babesaren esparruko beste kontrol agintari batzuk ere, dena delako autonomia erkidegoko legebiltzarrak bertako gobernuei egindako eskae-rak aztertzean. Beste kontu bat da, eta kontu konplexua da bestalde, lege gaikuntza horren mugei buruzkoa, segidan aipatuko duguna.

II

Eskatutako informazioa lagatzeko lege gaikuntza egon badagoela argi utzi eta gero, lege gaikuntzaren helmena zehaztu behar da.

Kontsulta honetan legebiltzarkide batek, Legebiltzarraren Erregelamenduaren babesa-rekin, pertsona baten kontratazioari buruzko espedientearen gaineko informazioa es-katu zuen; hau da, “[...]-(r)en lan kontratazioari buruzko espediente osoaren kopia bat, prentsan egindako publizitatea, frogatutako merezimenduak eta hautaketa prozesua.”

Eusko Jaurlaritzak emandako erantzunak dio *“espediente osoa emanez gero, DBLOn xedatutakoa urratzeko arriskua dagoela, espedienteak hautagaien datu pertsonalak dituelako, eta batzuk bereziki babestutako datuak direlako; adibidez, test psikotek-nikoak edo nortasunekoak.”* Hori dela eta, ezinezkotzat jotzen du DBLOren 11.2 d) artikuluko salbuespena ezartzea, eta honakoa bidali zuen: *“prozesuaren laburpen bat honakoekin: prentsan agertu zuen iragarkia, aholkularitza enpresako hautaketa-proze-suko erreferentzia zenbakia, eta [...] dela lanpostuko profiler a ondoen egokitzen den hautagaia dioen ondorioen txostena.”*

Lege gaikuntza frogatuta dago, baina ez DBLOren 11.2 d) artikuluan, Eusko Legebil-tzarreko Erregelamenduaren 11. eta DBLOren 11.2 a) artikuluetan baizik.

Legezko gaikuntzak esan nahi du alferrik dela esatea espedientearen datu pertsonalak daudela, horrek ez duelako balio Legebiltzarrari informazioa emateko obligazioa bertan behera uzteko. Eta bereziki babestutako datuak badaude, hau da, test psikoteknikoen emaitzak edo nortasunekoak, horrek esan nahi du horien gaineko beste azterketa bat egin behar dela.

Europako Kontseiluaren 108. Hitzarmenaren Azalpen Memorian (45. atala) osasunari buruzko datu pertsonalen kontzeptu zabala dago jasota, eta esaten du osasunari buruzko datua dela pertsona baten garai bateko, oraingo edo etorkizuneko osasun fisiko edo mentalari buruzko informazioa, pertsona hilda egon ala bizirik. Alkohola eta droga gehiegi kontsumitzeari buruzko informazioa ere multzo horretan sartzen da.

DBLO garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5 g) artikulua xedatzen du osasun datuen definizioa:

“g) Osasunarekin zerikusia duten datu pertsonalak: norbanakoaren osasun fisiokoari edo buru osasunari buruzko garai bateko, oraingo eta etorkizuneko informazioa. Zehazki esanda, osasunarekin zerikusia duten datutzat hartuko dira zenbaterainoko ezintasuna duten adierazten duten datuak eta informazio genetikoak ematen dutenak.”

Ikusten denez, osasun datuen kontzeptu oso zabala proposatu dute, eta test psikoteknikoetako informazioa ere horren barruan sar daitekeela uste dugu. Datu psikoteknikoak eta psikologikoak osasun datutzat hartu izan dituzte zalantzarik gabe datuen babesaren arloko kontrol agintaritzek. Esate baterako, Datuak Babesteko Kataluniako Kontrol Agintaritzaren CNS 38/2009 irizpenean adierazi zuten ebaluazio psikoteknikoetatik datozen datuak osasunarekin zer ikusia duten datuak direla, hain zuzen ere, datu psikologikoak direlako, eta azterketa egin dutenen gaitasunak eta nortasuna ebaluatu izanaren emaitza direlako. Kataluniako kontrol agintaritzaren ustez, datu psikologikoen tratamenduek, ebaluatutako pertsonen profil osoak sortzen dituzte, eta hortik are sentibleagoak diren beste datu batzuk ondoriozta daitezke, esate baterako, sinismen moralak eta erlijiosoak edo pertsonen bizitza sexuala.

Gogoeta horiek kontuan hartuta, ulertu behar dugu kontsulta honetan laga nahi diren datuak osasunaren arloko datuak direla; eta, beraz, aztertu behar da ea lehen ikusi dugun lege gaikuntzak balio duen osasun datuetarako.

DBLOren 7.3 artikulua arautzen du osasun datuen tratamendua, eta berariazko adostasuna ala lege gaikuntza behar direla dio.

“7. artikulua.

...

3. “Arrazari, osasunari eta sexu-bizitzari buruzko datu pertsonalak bildu, tratatu eta laga daitezke, interes orokorreko arrazoiak direla bide, legeren batek halaxe xedatzen duenean edo ukituak esanbidez onartzen duenean hori.”

Lege gaikuntzak direla eta ez direla, Konstituzio Auzitegiak esana du norberaren inimitaterako oinarritzko eskubideak izan ditzakeen balizko murrizketek honako baldintzak bete behar dituztela: konstituzioan oinarritutako legeren bat izan behar dutela

euskarri, proportzionalak izan behar dutela eta zehatz-mehatz adierazi beharko dituztela neurri murriztailearen oinarri material guzti-guztiak (Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaia, 16. lege oinarria; eta martxoaren 23ko 70/2009 Epaia, 3. lege oinarria). Epaia horrexen 11. lege oinarriak dio oinarritzko eskubide bat murrizten duen legeak ezin duela oinarritzko eskubidea urratu eta eskubidea baliatzea ezinezkoa egiteko moduan edo Konstituzioaren bermea baliogabetzeko moduan finkatu mugak. Konstituzio Auzitegiaren hitzetan, lege aurreikuspen murriztaileak “lege izaera” izan behar du (KAE 49/1999, 5. lege oinarria; KAE 169/2001, 6. lege oinarria eta KAE 184/2003, 2. lege oinarria).

Lehen esan dugunez, badaude hainbat aurreikuspen ahalbideratzen dutenak parlamentuko organoei adostasunik gabe lagatzea datuak, adibidez Herriaren Defendatzaileari (11.2.d artikulua) edo Parlamentuari berari (Erregelamenduaren 11. artikulua eta DBLOren 11.2 a artikulua); baina artikulua horietan xedatutakoek ez dute berariaz jasotzen osasun datuak laga daitezkeenik; beraz, azaldu dugun teoria hitzez hitz ezarri gero, ezinezkoa izango litzateke Legebiltzarrari osasun datuak lagatzea.

Baina, hala ere, doktrinak hainbat kasutan lege izaeraren betekizuna malgutzeko joera izan du. Merezi du gogoratzea Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko zuzendaria izandako Antonio Troncoso Reigadak esandakoa Parlamentuko hainbat organori edo Parlamentuari berari egiten zaizkien datu lagatzeak aztertu zituenean:

“Baina legeek ez dute jaso, bestea bezala, osasun datuak laga ahal zaizkien Herriaren Defendatzaileari, Kontuen Auzitegiari edo Parlamentuari. Hala ere, badirudi zilegi dela datu horiek komunikatzea, hirurak oinarritzko eskubideak babesten dituzten eta boterearen kontrol demokratikoa egiten duten organoak direlako; eta halakoetan, beharrezkoa den gutxienezko informazioa baino ezin izango da eman, kalitatearen printzipioa bete nahi bada” (Antonio Troncoso Reigada, “Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legeari egindako oharra”, 1002. or., Thomson Reuters argitaletxea, 2010).

Autore horren ustez Parlamentuak boterearen gaineko kontrol demokratikoa burutzeko eginkizuna duenez, eginkizunak berak egiten du zilegi osasun datuak lagatzea. Horrekin lotuta esan behar dugu DBLOren 7.3 artikulua bereziki babesten dituen datuen tratamenduetarako, hau da, osasun datuen tratamenduetarako, kontrol agintaritzek argi adierazten dute datu tratamenduaren oinarrian dagoen helburu bera izan behar dutela; beraz, datu egokiak, garrantzitsuak eta neurrikoak baino ezin izango dira tratatu. (DBLOren 4 artikuluan xedatuta dagoen datuen kalitatearen printzipioa). Beraz, kontsulta honetan aztertzen ari garen auziari erreparatu gero, esan daiteke kalitatearen printzipioa betetzeko, hautaketa prozesuan garrantzia izan duen informazioa bakarrik komunika daitekeela; hau da, osasunarekin zer ikusia duen informazioa eskatu ahal izango da, baina bakarrik hautaketa prozesuaren emaitzan eragina izan badu.

Baina, horrez gain, zilegi da, kalitatearen printzipioarekin bat, kontuan hartzea informazioa modu disoziatuan eskatzeko aukera ere badagoela, hau da, prozesuan parte har-

tu duten baina lanpostua eskuratu ez duten pertsonen datu identifikatiboak kenduta eskatzea; hala jokaturata helburua lortzen bada behintzat.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4.1 artikulua aldarrikatzen duen datuen kalitatearen printzipioak honakoa xedatzen du;

“Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko.”

Printzipio horrek arrazionaltasun irizpidea txertatzen du informazioa erabiltzen denean, eta lege gaikuntza badago ere, ezin izango da gehiegizko tratamendurik egin. Esanak esan, eman beharreko informazioaren proportzionaltasunaren gaineko balorazioa egitea ez dagokio Agentziari, Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11.4 artikulua xedatzen duenez:

“11.4. artikulua.

Bigarren paragrafoan zehaztutako epea igarotakoan, Administrazioak, berariaz adierazita edo adierazi gabe, ukatu egiten baldin badu eskatutako dokumentazioa edo informazioa, edo zati bat bakarrik edo mugatuta ematen baldin badu, ekimena sinatu duen legebiltzarkideak Legebiltzarreko lehendakariarengana jo ahal izango du, Administrazioari artikulua honetan aurreikusitakoa betetzeko eska diezaion. Hori gertatuz gero, lehendakariak, Mahaiarekin ados jarrita eta eskaeraren aurrekariak aztertu ondoren, Jaurlaritzaren erabakiarekin bat dato-rra adieraziko dio legebiltzarkideari, horretarako dituen arazoak azalduz, edo Jaurlaritzak bidali gabe duen dokumentazioa bidaltzeko eskatuko dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak berriro ukatzen baldin badu, Legebiltzarrari kontu eman behar-ko dio hurrengo osoko bilkuran.”

Artikulu horrek dioenez, Eusko Legebiltzarreko lehendakariak, Mahaiarekin adostuta, baloratuko du (Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren irizpideak kontuan hartuta, egoki irizten badio) ea ados dauden ala ez Eusko Jaurlaritzaren erabakiarekin; eta Agentziak ezin du esku hartu Legebiltzarreko bi erakunde horien eginkizunetan, erabaki egokia hartzeko irizpideak ematea baino ez baitagokio Agentziari.

Azkenik, ezin dugu esan gabe utzi Eusko Jaurlaritzari egindako informazio eskaerekin gerora egiten diren tratamenduek ere berdin-berdin bete beharko dutela datu babesaren arloko araudia; eta, beraz, ezin izango dela egin lege babesik ez duen tratamendurik.

Lehen hezkuntzako hirugarren mailako probei buruz legebiltzarkide batek egindako galdera ea datu babesaren araudiarekin bat datorren

Data: 2015-11-09

CN15-020

LEHEN HEZKUNTZAKO HIRUGARREN MAILAKO PROBEI BURUZ LEGEBILTZARKIDE BATEK EGINDAKO GALDERA EA DATU BABESAREN ARAUDIAREKIN BAT DATORREN ARGITZEKO EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Erakundearen legebiltzarkide baten kontsulta bat jaso dugu, galdetuz ea zein den Agentziaren irizpena goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Zehatz esanda, honako hauek dira legebiltzarkideak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari egindako galderak, eta bere ustez, behar bezala erantzun ez dizkietenak:

"1.- Zein ikastetxe aukeratu zituen Hezkuntza Sailak aipaturako proba egiteko (herrialdeka banaturik, publikoak edo itunpekoak bereizita eta hizkuntza ereduaren arabera banaturik)?

2.- Zeinetan egin ziren azkenean azterketak?

3.- Zein ikastetxek uko egin zioten proba hori egiteari?"

Kontsulta egin duen legebiltzarkideak uste du hezkuntza administratibotik jaso duen erantzuna ez dela egokia, ez dituelako identifikatzen hiru galderetan aipatzen diren zentroak. Eta galdetu dio Agentziari ea Sailak hartutako erabakia, informazioa ez emateko, ondo ezkontzen den Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoarekin, eta ea arrazoizkoa den, ala kontrakoa gertatzen den eta legebiltzarkidearen eskubidea urratzen duen.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datu pertsonalak babesteko eskubidea oinarrizko eskubidea da, eta Konstituzioaren 18.4 artikuluan du jatorria:

“Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritzza osoa bermatzeko.”

Jurisprudentziak sortutako oinarrizko eskubidea da. Konstituzio Auzitegiaren azaroaren 30eko 292/2000 Epaia honela definitu zuen eskubidearen edukia:

“Datuen gaineko boterea izatea eta datu horien gainean erabakiak hartzeko gaitasuna izatea da, eta gaitasun horrek ahalmena ematen dio pertsonari honakoak erabakitzeko: ea datu horietatik zeintzuk eman nahi dizkion hirugarren bati, dela Estatu dela partikular bat, eta ea hirugarren horrek datu horietatik zeintzuk bildu ditzakeen; horrez gain, ahalmena ematen dio jakiteko ea datu pertsonal horiek nor dauzkan eta zertarako, eta bere datu pertsonalak inork edukitzearen edo inork erabiltzearen aurka agertzeko ahalmena ere ematen dio. Norberaren datu pertsonalak kontrolatzeko eta horien gaineko erabakiak hartzeko boterea datu babeserako oinarrizko zuzenbidearen edukiaren zati bat da eta botere hori honako gaitasun hauek gauzatzen dute juridikoki: datu pertsonalak biltzeko, eskuratzeko eta atzitzeko adostasuna adierazteko gaitasunak, geroago datu horiekin egiten diren biltegiatzeen eta tratamenduen gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak eta hirugarren batek, dela Estatuak dela partikular batek, datu horiekin egin dezakeen edo ditzakeen erabileraren edo erabileren gaineko adostasuna adierazteko gaitasunak. Beraz, ukituak berari buruzko datuak bildu eta erabiltzeko adostasuna emateko eta datu horien berri izateko eskubideak ditu, eta badirudi eskubide horiek datu babeserako oinarrizko eskubidearen berezko osagaiak direla. (...)” (7. oinarri juridikoa).

Gaur egun Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak (DBLO) arautzen du datu pertsonalak babesteari buruzko edo autodeterminazio informatiborako eskubidea.

DBLOren ezarpen eremuak bakar-bakarrik datu pertsonalen tratamenduak harrapatzen ditu, hau da, pertsona fisiko identifikatuen edo identifikagarrien gaineko informazioa (DBLOren 3 a) artikulua eta 2.1 a) artikulua).

Beraz, esan beharrean gaude **pertsona fisikoak baino ez direla datu pertsonalak babesteko eskubidearen titularrak.**

DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuak (aurrerantzean DBLO-ED) gehiago zehazten du datuak babesteko legediaren ezarpen eremu objektiboa. Hona 2. artikuluan xedatzen duena:

“2. artikulua. Ezarpen eremu objektiboa

1. Erregelamendu hau euskarri fisikoan erregistratutako datu pertsonalekin aplikatzekoa izango da, baldin eta tratamenduren bat egin badaiteke euskarri horiekin, eta datu horiek gerora sektore publikoan edo pribatuan izango duten edozein erabilerari ere aplikatuko zaio.

2. Erregelamendu hau ez da aplikatuko pertsona juridikoei buruzko datuak dituzten tratamenduekin, ez eta pertsona juridiko horientzat lan egiten duten pertsona fisikoen datuak baino jasotzen ez dituzten fitxategiekin, baldin eta pertsona fisiko horiei buruzko datuak izen abizenak, betetzen duten lanpostua, posta helbidea edo posta elektronikoa, eta laneko telefono-zenbakia eta faxa badira.”

3. Era berean, banan banako enpresariei buruzko datuak, horiei egiten zaien erreferentzia merkatarri, industria arloko enpresari edo itsas merkatarri izateagatik bada, pertsonalak babesteko erregelamendu honen ezarpen-eremutik kanpo geratuko dira.

4. Erregelamendu hau ez zaie aplikatuko hildako pertsonen buruzko datuei. Dena den, hildakoarekiko loturaren bat duten pertsonen, familia-lotura edo antzeko besteren bat dela-eta, pertsona horri buruzko datuak dituzten fitxategi edo tratamenduen erantzuleengana jotzeko aukera izango dute, heriotzaren berri emateko, aurkeztu beharreko agiriak aurkeztuta, eta horretarako aukera dagoen unean, datuak ezerezteko eskatuko dute.”

Artikulu horretatik ateratzen den ondorioa da, guri orain interesatzen zaigunez, datu babesaren esparruko araudiak ematen duen babesak ez dituela barnean hartzen pertsona juridikoen datuak (DBLO-EDren 2.2. art.) eta banan-banako enpresarioen datuak ere ez, enpresario moduan ari direnean.

Beraz, ikusi dugunez, datu babesari buruzko araudiaren arabera, hezkuntza administrazioak, diagnosi-ebaluazioaren probetan parte hartzeko aukeratutako **ikastetxe publikoen eta pribatuen izenak** eta prozesuan parte hartu zuten ikastetxeenak, eta proba egiteari uko egin zieten izenak **ez dira datu pertsonalak; eta, ondorioz, DBLOk ez du babesten datu horiek lagatzea.**

Eta horrekin lotuta, azpimarratu behar da ikastetxe publikoek ez dutela nortasun juridikorik. Hezkuntza administrazioak, irakaskuntzaren zerbitzu publikoa emateko erabiltzen duen tresna direlako.

Bestalde, itunpeko ikastetxeak titulartasun pribatuko zentroak dira, eta hezkuntza administrazioak hitzartu egiten du itunpeko ikastetxeekin irakaskuntzaren zerbitzu publikoa.

Ondorioz, legebiltzarkidearen eskabideak aipatzen dituen ikastetxeen izenak ematea ukatzeko arrazoia ezin da izan datu pertsonalen babesa.

II

Aurreko puntua argi utzita, bigarren kontu batekin segituko dugu, nahiz eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoak ez izan horren gaineko eskumenik, hau da, ebatzi behar dugu ea Hezkuntza Administrazioak ikastetxeen izenak ez emateko ebazpenak urratu egiten ote duen eskatzaileak legebiltzarkidea den neurrian duen eskubidea.

Eta laguntzeko asmo hutsez adierazi nahi dugu komeni dela gogoan izatea legebiltzarkideek, dagokion gobernuari edo administrazioari informazioa eskatzeko, duten eskubidea Konstituzioaren 23.2 artikulua bermatzen duen oinarritzko eskubidearen barruan dagoela (irailaren 20ko KAE 161/1998); eta eskubide horrek *“administrazio publikoei informazio jakin bat eskatzeko eta informazioa jasotzeko eskubideak hartzen ditu bere baitan”* (urriaren 15eko KAE 2013/2001).

Baina, Gobernu-ekintzak kontrolatzeko funtzioa baliatzeko legebiltzarkideen eskubidea ez da erabatekoa edo mugagabea, kontrakoa baizik, hau da, gainontzeko eskubideak bezala, mugak baititu, bai eta bazterketak ere, nahiz eta modu murriztailean ulertu behar diren.

Gobernuak badu legebiltzarkide batek eskatu dion informazioa edo dokumentazioa emateko betebeharra bertan behera uzteko edo mugatzeko aukera, baldin eta honako arrazoiak badaude tartean: segurtasuna, arbitrariotasuna debekatzea, oinarritzko eskubideak babestea, eskubideaz abusatzeke debekua eta abar. Hau da, Konstituzioak eta gainontzeko lege ordenamenduak botere publikoaren erabilerari ezartzen dizkion printzipio orokorrak dira mugen jatorria.

Kasu honetan, kontsulta egin duen legebiltzarkideak dioenez, Hezkuntza Administrazioak honako aginduan oinarritu duela dirudi ukatzeko arrazoia: garai hartako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2008ko abenduaren 2ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan diagnosi-ebaluazioko prozesua arautzen duena (2008ko abenduaren 9ko EHAA, 235 zk.).

Aginduak dioenez, diagnosi-ebaluazioa funts publikoak dituzten ikastetxe guztiek egin beharko dute, eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkun-

tzako 2. mailan dauden ikasle guztiek diagnosi-ebaluazioko probak egin beharko dituzte, prozesu orokorrean ezartzen diren baldintza eta egunetan (2. artikulua).

Diagnosi-ebaluazioko proben helburua izango da Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan ari diren ikasleek oinarrizko gaitasunen jabekuntzan lortu duten maila egiaztatzea. Gainera, ebaluazio diagnostikoak izaera hezigarri eta orientatzailea du ikastetxeentzat, eta informatzailea familientzat zein hezkuntza-komunitate osoarentzat; eta probetan lortzen diren emaitzek ez dute ikasleentzat ondorio akademikorik izango (3. artikulua).

Bukatzeko, Aginduaren 7. artikulua emaitzen eskuragarritasuna, erabilera eta tratamenduari buruzko da, eta lehen idatz-zatian honakoa xedatzen du:

“175/2007 Dekretuaren 36.4 artikuluan adierazten denez, ebaluazio diagnostikoan lortutako informazio guztia erabiltzean Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, bete beharko da. (...)”

Horretarako, Aginduaren 7.1 artikulua hainbat irizpide ezartzen ditu, eta honakoak dira labur esanda:

- Datu pertsonalak ebaluazioaren helburuei begira egokiak, bidezkoak eta ez gehiegizkoak direnean soilik bilduko dira.
- Datu pertsonal horiek ezingo dira bildu diren helburuekin bateragarriak ez diren beste helburu batzuetarako erabili.
- Datu pertsonalak deuseztatuak izango dira bilduak edo erregistratuak izan ziren helburuetarako beharrezkoak edo bidezkoak izateari uzten diotenean.
- Datu pertsonal guztiak, eta baita probak egiteko prozesu bakoitzean parte hartzen duten ikastetxe eta taldeenak ere, horiek identifikatu ahal ez izateko moduan bildu eta gorde beharko dira, eta horretarako kode alfazenbakizkoak erabiliko dira beti, eta inoiz ez izen bereziak edo ikastetxeen izenak.
- ISEI-IVEIk, ebaluazioaren datu guztien eta, hortaz, fitxategi guztien arduraduna den heinean, beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketazko guztiak hartu beharko ditu.
- Beren lana edo lanpostua dela-eta probak egiteko prozesuaren edozein fasetan parte hartzen duten pertsona guztiek isilpekotasuna eta sekretu profesionala gorde beharko dute, eta obligazio hori ebaluazio diagnostikoarekiko harremana bukatu ondoren ere indarrean egongo da.

Aginduko artikulua hori ikusita, honako ondorioak atera daitezke:

1.- Proba horietatik eratorritako datu tratamenduak DBLOren menpe daude erabat, bai eta DBLOk ezarritako printzipioen eta bermeen menpe ere (kalitatea, helburua, segurtasuna, sekretu gorde beharra...).

2.- Ikasleen identitatearen konfidentziasunaren xedea da ikasleen pribatutasuna mantentzea, batez ere jakinda proben emaitzek ez dutela ondorio akademikorik.

3.- Zentroen identitatearen konfidentziasunaren xedea da ezin izatea inoiz ikastetxeen arteko sailkapenak egin nahiz hurrenkerak ezarri ikastetxeen arteko alderaketak egiteko. Ondorio hori hitzez hitz dago jasota 2008ko abenduaren 2ko Agindua-ren 7.4 artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren 36.4 artikuluan. Azken finean, Aginduak garatu egiten du dekretuak dioena.

Beraz, aurreko guzti hori aintzat hartuta, Agentziak uste du abenduaren 2ko Agindua ezin dela izan legebiltzarkideak eskatu duen informazioa ukatzeko arrazoia, baldin eta datuak (ikastetxeen izenak) ez badatoz ikasleen izenei eta emaitzei lotuta, ezinezkoa delako ikastetxeen arteko sailkapenak egitea nahiz hurrenkerak ezartzea ikastetxeen arteko alderaketak egiteko. Eta horixe da, hain zuzen ere, Aginduak lortu nahi duena konfidentziasun neurria ezarrita.

II.
LEGE BILTZARREKO
EZTABA IDETATIK
ERATORRITAKOAK

Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiak egindako ziurtagiriak, adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko

Data: 2015-11-16

CN15-027

ADINGABEKOEKIN OHIKO HARREMANA EDUKI BEHARRA DAKARTEN LANBI-DEETAN ETA LAN JARDUERETAN ARITZEKO, AURKEZTU BEHAR DEN ZIGOR AURREKARIEI BURUZKO ZIURTAGIRIARI BURUZKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015eko urriaren 30ean [...] batek helarazitako idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Hona idazkiak zioena, besteak beste:

“Haurtzaroa eta Nerabezaroa Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak 5. idatz-zatia gehitu dio legearen 13. artikuluari, eta honakoa xedatzen du:

Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko bete beharreko baldintza izango da epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako deliturren batengatik, esate baterako, sexu-erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa eta adingabeak galbideratzea eta gizakien salerosketa. Horregatik, halako lanbidean eta lan jardueretan aritu nahi dutenek hori hala dela egiaztatu beharko dute, eta, horretarako, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.

Baina, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusirik ez dago. Beraz, Zigor Aurrekarien Ziurtagiriari buruzkoa den Laugarren Xedapen Gehigarriak honakoa xedatzen du:

Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia abian jarri bitartean, Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiak emango ditu Adingabeekin Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua, Kode Zibila zati batean aldatzen duenak eta Prozedura Zibileko Legea aldatzen duenak aipatzen duten ziurtagiria.

Legeak, Azken Xedapenetako hamazazpigarrenean, sei hilabeteko epea ezartzen du Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia antolatzeko. Lege testutik ondoriozta-

tzen da Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiak emango duela behin-behingo egiaztagiria. Arazoa etorri da Justizia Ministerioaren Lurralde Ordezkaritzako bulegoetara ziurtagiria eskatzera joan eta hango langileek ez dutelako egiaztagiriaren eredia konfiguratuta ordenagailuan; eta, ondorioz, egin dezaketen ziurtagiri bakarra da zigor aurrekariei buruzko ziurtagiri orokor bat, eta handik ondorioz-tatu beharko delako ez dagoela sexu deliturik. Legeak ez du halakorik eskatzen. Legeak eskatzen du sexu delituen aurrekariei buruzko ziurtagiri negatiboa.

Ziurtagiria aurkeztu behar duten langileek uste dute gertakari hori datu pertsonaletan esku hartzea dela, lege eskatzen zaizkien datuez aparteak direlako; datuak lan egiten duten agentziaren edo enpresaren esku jarri behar dituztelako, eta kalte handia eragin ahal delako horrek. Horregatik, halako datuak lagatzearen aurrean, datuak babesteko eskatzeaz gain, ziurtagiria aurkezteko luzapen bat ere eskatu nahi dute, harik eta Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia prest egon arte eta ziurtagiria egiteko moduan egon arte.

Kontuan izan behar da datu horiek ematea Datu Pertsonalak Babesteari buruzko urtarilaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren aurka dagoela, 15/1999 Legeak dioelako interesdunaren adostasuna beharko dela legean adierazita ez dauden datuak biltzeko eta datu horiek beste helburu baterako erabiltzeko. Ez dut azterketa sakon bat egin nahi, esateko zehatz-mehatz zein printzipio eta artikulua urratzen diren, hori delako Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egindako eskabidearen helburua: irizpen bat egiteko, azaltzeko ea neurria egokia den, eta ea datuak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 4.1 artikuluan jasotzen dena kontuan hartuta, ez diren gehiegizkoak datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko."

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

"Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea."

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Erakunde honi galdetu diote ea adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko zenbait aurrekari penal ez daudela egiaztatzeko zurtagiri-sistema ondo ezkontzen den datu pertsonalak babesteari buruzko araudiarekin.

Kontsulta idazkiak ondo dioenez, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Lege Organikoak bi atal berri gehitu dizkio Adingabe-koen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikuluari (4. eta 5. idatz-zatiak), eta komeni da horietako bigarrena hona ekartzea:

“Adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko bete beharreko baldintza izango da epai irmo bidez sekula kondenatua ez izana sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik, esate baterako, sexu-erasoa eta sexu-abusua, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu esplotazioa eta adingabeak galbideratzea eta gizakien salerosketa. Horregatik, halako lanbidean eta lan jardueretan aritu nahi dutenek hori hala dela egiaztatu beharko dute, eta, horretarako, Delitugile Sexualen Erregistro Nagusiko egiaztagiri negatiboa aurkeztu beharko dute.”

26/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrak ziurtagiria emateko aldi baterako erregimena ezartzen du:

“Laugarren xedapen iragankorra. Zigor aurrekarien ziurtagiria.

Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia abian jarri bitartean, Zigor Aurrekarietarako buruzko Erregistro Nagusiak emango ditu Adingabe-koen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua, Kode Zibila zati batean aldatzen duenak eta Prozedura Zibileko Legea aldatzen duenak aipatzen duten ziurtagiria.”

Legearen Azken Xedapenetako hamazazpigarrenak dio Gobernuak sei hileko epean burutu beharko dituela Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia antolatzeke lege xedapenak, eta abian jarri bitartean, Zigor Aurrekarietarako buruzko Erregistro Nagusiak emango duela 1/1996 Legearen 13. artikulua eskatzen duen egiaztagiria.

Kontsulta idazkiak dioenez, arazoaren muina da Zigor Aurrekarietarako buruzko Erregistro Nagusiak behin-behingoan eman beharreko ziurtagiria ez dela ikuspegi negatiboarekin ematen, izaera orokorrearekin baizik; eta, beraz, aurrekaririk ez dagoela adieraz dezake ala dauden aurrekari guztiak jaso bertan, nahiz eta zer ikusirik ez eduki adingabeekin lan egiteko eskatzen denarekin.

Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiaren ziurtagiriak arautzen dituen arauari begiratzen badiogu, ikus dezakegu zera dioela Justizia Administrazioari laguntzeko administrazio-erregistroen sistema arautu eta errepositorien agiri-funtsa sortzen duen otsailaren 6ko 95/2009 Errege Dekretuaren 17.1 artikulua:

“17. artikulua. Titular interesdunak berak eskatuta egindako ziurtagiria.

1. Titular interesdunak berak eskatuta, zuzenean egiaztatu ahal izango dira Zi-gortuen Erregistro Nagusian eta Kautela Neurrien, Errekisitorien eta Epai Ez Irmoen, Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko, Adingabeen Erantzukizun Penaleko Epaei buruzko eta Auzi-iheslari Zibilei buruzko erregistroen inskripzioe-tan dauden berari buruzko datuak, eta bertan inskribatuta ez dauden pertsonen buruzko ziurtagiri negatiboak egin ere bai.”

Arau horren arabera, Zigortuen Erregistro Nagusiak egin beharreko ziurtagiria bertan inskribatuta ez dauden pertsonen buruzkoa da; baina, Adingabeen babes juridikoari buruzko 1/1996 lege Organikoan berriki gehitutako 13.5 artikulua eskatzen du Delitugile Sexualen Erregistro Nagusian inskribatuta dauden delituekiko ziurtagiri negatiboa; eta, datu babesari dagokionez, horrek desberdintasun handi bat ekarri du.

Alegatu daiteke ziurtagiria eskatu duen herritarrak borondatez aurkeztuko diola gero ziurtagiria dagokionari, betekizuna betetzen duela egiaztatzeko. Arrazonamendu formal horrek, ordea, alderdi garrantzitsu bat ahaztu du: informazioa ematen den uneko adostasun inplizitua ez dela behar besteko askatasunarekin ematen.

Horrekin lotuta, gogoratu behar da interesdunaren adostasuna arautzen duen araua dela Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 h) artikulua: *“interesdunaren borondate-adierazpen askea, argia, berariazkoa eta informatua da, berari buruzko datu pertsonalak tratatzeko adostasuna adierazteko.”*

Lanbidean edo lan jardueran aritu nahi duen hautagaiak, gaur egun modu bakarra duenez funtsezko baldintza betetzen duela egiaztatzeko -Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusiak egindako ziurtagiria aurkeztuz- ezin da esan ziurtagiria aurkeztea benetako borondatezko egintza bat denik. Horregatik, ezin da esan ziurtagiria aurkezteak dakarren datu lagatzea zilegi denik, titularraren adostasunarekin egin omen delako, eta DBLOren 11.1 artikulua dioena betez.

Hain zuzen ere, kontuan izan behar da DBLOren 7. artikuluko datuez ari garela, eta erregimen berezia dutela. Hona 5. idatz-zatiak dioena hitzez-hitz:

“Arau-hauste penal eta administratiboen inguruko izaera pertsonaleko datuak Administrazio Publiko eskudunen fitxategietan bakarrik jaso daitezke, kasuan kasuko arauetan ezarritako kasuetan.”

Datu garrantzitsuak direnez, legegileak agindu du administrazio publikoetako fitxategiek baino ez dituztela edukiko halako datuak, eta mugatu egin du halako datuen tratamendua ere; beraz, legeak agindutakoa urratu egingo litzateke, adingabeekin ohiko harremana duten lanpostuetako hautagaien aurrekariak esparru pribatuko fitxategietan sartuz gero.

Erakunde honen ustez, herritarrek Zigor Aurrekariari buruzko Erregistro Nagusiari eskatzen badiote adingabeekin ohiko harremana izatea dakarten lanbideetan eta lan jardueretan sartzeko eta jarduteko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 13. artikulua agintzen duen ziurtagiria, Erregistroak ziurtagiri negatiboa egin beharko duela, esanez sekula ez dela kondenatua izan sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delituren batengatik. Helburu horretarako 26/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorraren babespean emandako beste edozein informazio gehiegizko informazioa da eta datu babesaren esparruko araudiaren kontrakoa da.

III.

AZETA ESKUBIDEAK

Erakunde web bateko datuak ezerezte

Data: 2013-11-18

CN13-043

ERAKUNDE WEB ORRI BATEAN ARGITARATUTAKO DATUAK EZEREZTEARI BURUZ EGINDAKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2013ko azaroaren 7an goiburuan adierazitako gaiari buruzko irizpena eskatzen zuen idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan.

BIGARRENA: Idazki horretan honakoaren berri eman zioten Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Pertsona batek guregana jo du, eta eskatu digu bere izena ezabatzeko gure web orritik.

Datuak 1882ko [...] aldizkari ofizialean argitaratzen dira, eta bertan [...] funtzionario plaza baterako aurkeztu ziren pertsonen izen-abizenak ageri dira.

Paperezko aldizkari ofiziala [...] artxiboetan gordetzen da. Eskaneatu ondoren, Legebiltzarreko web orrian agertzen dira, Legebiltzarreko informazioa herritarren eskura jartzea helburu duen plan orokor baten barruan.

Idazki honen bidez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu nahi diot ea zilegi den herritar honen eskabidea aintzat hartzea.”

HIRUGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkieten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkieten galderei erantzutea.”

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio eragin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak hainbat ebazpen egin ditu aldizkari ofizialetan argitaratzen diren datu pertsonalak ezerezteko eta datuen tratamenduari aurka egiteko eskubideari buruz.

Oso egokia da Agentzian, EHAAan argitaratutako datu pertsonal batzuk ezerezteko eskaera bat ukatu zelako, aurkeztu zuten babes eskaera bati buruz egin genuen arrazoiaketa juridikoa.

Hirugarren eta laugarren oinarri juridikoez honakoa xedatzen dute:

“Aurrekoa ikusita, eta espedienteetan dagoen informazioa kontuan hartuta, egiaz-tatu dugu [...]-(e)ko Udaleko Ogasun Ordezkariek 2012ko maiatzaren 7an Eba-zen bat eman zuela [...] andreak egindako datuak ezerezteko eskabidea ezetsiz. Ezesteko arrazoiak honakoa da: “Eskabidea ikusita, uste dugu datu pertsonal ho-riek argitaratzen dituen aldizkari ofizialera zuzendu behar dela eskabidea... Ondor-ioz, eskabidea ezetsi egiten dugu...” Hau da, eskabidea Euskal Herriko Agintari-tzaren Aldizkarira bidali beharko da, bertan argitaratzen dituztelako datuak.

Hari horri helduta, hasteko esan behar da, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak behintzat hala uste du betidanik, datu babesari dagokionez, aldizkari ofizialak hainbat eta hainbat fitxategiren arduradunek, legeak hala egiteko agintzen die-lako, egin behar dituzten datu tratamenduen emaitza edo ondorio direla, eta aldi-zkariaren ardura duen organoak arduradun horien kontura kudeatu behar dituela.

Beraz, kontuan hartuta DBLO garatzen duen Erregelamendua onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 5.1 i) artikulua dioela tra-tamendu-eragilea “persona fisiko edo juridiko publiko edo pribatua izango dela, edo administrazio-organo bat, bakarka edo beste batzuekin batera datu pertsonalak erabiltzen dituena, tratamenduaren erantzulearen edo fitxategiaren erantzulearen (arduradunaren) bidez, lotura juridiko bat egoteagatik; eta lotura horrek zerbitzua eskaintzeko jardute-eremua zein izango den mugatzen duela”; hori kontuan hartuta, ateratzen den ondorioa da aldizkari ofiziala kudeatzeko ar-dura duen organoa tratamendu-eragile “berezia” dela, era askotako arduradu-nen kontura tratatu behar dituela datu pertsonalak, eta arduradun horiek legeak agintzen dielako argitaratu behar dituzte datuak aldizkari ofizialean.

Beraz, aldizkari ofizialetan argitaratzen diren agirien ezaugarrietako bat da datu horiek argitaratzeko agintzen duten organoak direla bertan argitaratzen diren datu pertsonalen iturburu diren fitxategien arduradunak.

Halakoetan, nahiz eta aldizkari ofizialaren edo boletinaren arduradunaren aurrean baliatu eskubideak (gogoratu behar dugu tratamendu-eragile "berezia" dela, lehen esan dugunez), baliatutako eskubide horren gainean erabakiak hartzeko aukera eta iritzia bene-benetan duena datu horiek gordeta dituen jatorri-fitxategiaren arduraduna da; eta arduradunak argitaratzeko erabakia hartu eta gero, aldizkari ofizialaren organo arduradunari jakinarazi beharko dio erabakia, organo arduradunak egin dezan egin beharrekoa.

Hau da, argitaratutako egintzak edo ebazpenak ondorio juridikoa izandakoan, eta, beraz, egintza edo ebazpen horren aurka egiteko aukerak agortutakoan, ez du zentzurik datu pertsonalak argitaratuta segitzea.

Beraz, aztertzen ari garen kasuan, kontuan hartzen badugu argitalpenak bete zuela bere helburua, hau da, egintzaren eraginkortasuna lortzea, bidezkoa da eskatu duten ezerezte eskabidea onartzea.

Kontsultaren objektua kontuan hartuta, gertatzen da datuak argitaratzea erabakitzen duen erakundea eta datu horiek argitaratzen dituen aldizkari ofiziala kudeatzen duen arduraduna erakunde bera direla, eta eskumen biak [...]ri dagozkio.

Eskatzen dena da [...]k deitutako hautaketa prozesu batean parte hartu zuen pertsona baten izen-abizenak ezerezteko. Uste dugu prozesu hori dela eta, argitaratu zirela datu horiek 1982an.

Hautaketa prozesuetan bete behar diren publikitate eta lehia printzipioak betetzeak esan nahi du parte hartzaileen izen-abizenak argitaratu egin behar direla. Edozelan ere, helburua bete ondoren, baloratu egin beharko da ea jarraitu behar duen aldizkari digitalen edizioetan argitaratuta segitzeko epeak ala ez. Azken kasu honetan, informazioak hor segitzeak urratu egiten du, gure ustez, DBLOren 4.1 artikuluko datuen kalitatearen printzipioa.

"Datu pertsonalak jaso eta tratatu ahal izateko ezinbesteko baldintza da datu horiek egokiak, bereizleak eta neurrikoak izatea, datu bilketaren eremuarekiko eta datu bilketaren helburu zehatz, esplizitu eta legitimoekiko."

Administrazio publikoak jada hasi dira halako balorazioak egiten. Esate baterako, Laneako eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren ediktuen oholara arautzen duen urriaren 8ko ESS/1892/2013 Agindua aipa dezakegu. Aginduaren 8. artikulua 20 egun naturaleko epea ezartzen du ediktuak argitaratzeko; eta 10. artikulua dio, epe hori bukatutakoan, ediktua urte betez egongo dela eskuragarri kontserbazio ediktu baten bidez.

Aldizkarian argitaratuta egon beharreko epeaz gain, argitalpenarekin zer ikusirik ez duen beste alderdi batzuk ere baloratu behar dira, adibidez, bilaketa motoreen bitartez informazioa modu automatikoan berreskuratzeko aukera dagoela. Zentzu horretan,

gure ustez oso egokia da ESS/1892/2013 Aginduaren 11. artikuluan jasotako aurreikuspena. Bertan arautzen da herritarrak nola ikus dezaketen ediktuen ohola.

“Ediktuen oholean argitaratutako eta argitaratze epea bukatuta duten ediktuek aurkitzeko, eta ediktu horiek berreskuratze eta inprimatzeko, bilaketa aurreratuko sistema bat erabili beharko da. Sistema horrek Internet bidezko motorren bidez egiten diren argitalpenak indexatzeko eta modu automatikoan berreskuratzekeo trabak jartzen dituen mekanismoak edukiko dituzte.”

Helburua da gehiegizkotzat jotzen diren datuak ez agertzea, datuen tratamenduaren helburua beteta badago, hirugarrenek atzitzeko moduan ez daitezen egon eta datuak ez daitezen berriro tratatu.

Gai hau landu zuen bere garaian Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1995eko urriaren 25eko 95/46/CE Zuzentarauaren 29. Artikuluko Lan Taldeak, 2008ko apirilaren 4ko txostenean, eta atera zuten ondorioa izan zen bilaketa zerbitzuen hornitzaileek gehienez ere sei hilabeteko epean gorde beharko dituztela, ez dagoelako lege-oinarririk epealdi luzeagoan mantentzeko dioenik.

Ondorio horixe bera jaso zuten datu pertsonalak Interneteko aldizkari ofizialetan, erakunde web guneetan eta bestelako bitarteko elektronikoen eta telematikoen argitaratzeari buruzko Datuak Babesteko Madrileko Erkidegoko Agentziaren apirilaren 25eko 2/2008 Gomendioaren 11.1 artikuluan. Gomendioaren 11.2 eta 11.3 artikuluek zera dio:

“Gomendio honek bilaketa motor orokorrek egiten duten indexazio automatikoentzat eta aldizkari ofizialaren web orriko edo erakunde web gune-ko edo administrazio kanal elektronikoen edo telematikoen emandako berariazko bilaketa motorretatik abiatuta lortzen diren emaitzetarako balio du, pertsona fisikoen datu pertsonalak argitaratzen direnetik sei hilabete igaro eta gerorako.

Batez ere, Internet bidez argitaratzen diren aldizkari ofizialek eta web guneek eta bestelako erakunde-kanal elektronikoen edo telematikoen bilaketa motorrak badiuzte eta bilketa motor horiek informazioa bilatzea ahalbideratzen badute edo bertan argitaratuta agertzen diren pertsona fisikoen datu pertsonalak bilatzea, lokalizatzea eta biltegitratzea ahalbideratzen badute, halakoetan gomendatzen da artikulua honetan aipatutako neurriak hartzeko.

Zehatz esateko, gomendatzen da administrazio publikoak edo eskumena duen organoak har ditzala hartu beharreko neurri tekniko egoki guztiak Interneteko aldizkari ofizialetan edo web guneetan eta bestelako erakunde-kanal elektronikoen edo telematikoen dauden datu pertsonalak indexatzea ezinezko izan dadin.

Ondorio horietarako, tratamenduaren arduradunari edo, halakorik ezean, tratamendu-eragileari iradoki nahi diogu Gomendio honen xede diren web guneetan robot erakoak ez diren tresna teknikoak eta informatikoak inplementatzeko, hori eginda, bilaketa motorren bidez eskuratu daitekeen informazio pertsonala ahalik eta gutxien zabaldu dadin.

Era berean, une bakoitzean teknologiaren egoera zein den kontuan hartuta, tratamenduen arduradunei edo, halakorik ezean, tratamendu-eragileei gomendatu nahi diegu, bilaketa motorrek datu pertsonalak modu automatikoan ez indexatzea lortu nahi bada, beste edozein neurri tekniko edo informatiko hartzea eta inplementatzea sustatu dezatela, datu pertsonaldun edukiak indexatzea ezinezkoa izan dadin.

11.3 Legeak agintzen duelako edo Gomendio honetako 9. eta 10. artikuluek aipatzen dituzten kasuren bat gertatzeko delako, aldizkari ofizialaren edo erakunde web gunearen edo administrazio kanal elektronikoa edo telematikoaren arduradunak ezin badu datu tratamendua eten, gomendatu behar dugu erakunde web-gune edo kanal elektronikoa edo telematiko horietan dauden bilaketa zerbitzuek bertan behera utzi behar dutela datu pertsonalen tratamendua.

Ondorio horietarako, bilaketa zerbitzu horiei gomendatu nahi diegu neurriak hartzeko informazioa tratatzeari utz diezaioten eta etorkizunean ere ezinezkoa izateko datuak atzitzea zerbitzu horien bidez“.

Luzea izan bada ere, aipamena funtsezkoa da; izan ere, bilaketa motor orokorrek informazioari ez indexatzea lortuz gero, eta dena delako web gune berariako motorrek (gure kasuan aldizkari ofizialaren edizio digitala [...]) ere bilaketarik ez egitea lortuz gero, datua ezabatzea lortzen ez bada ere, bai lortzen da hirugarrenentzat hain erraza ez izatea informazioa atzitzea. Konponbideak ez du lortzen datuak ezabatzea bere horretan, baina esan daiteke informazioa blokeatu egiten duela, eta horrek herritarrak, bere datuak ezabatu ditzaten egindako eskaera, asebetetzeko balio du. Gainera, aldizkari ofizialaren benetakotasuna, osotasuna eta aldaezintasuna bermatzen da horrela.

Gure ustez, gomendio guzti horiek oso egokiak dira kontsulta planteatzen den kasuan.

GAIEN AURKIBIDEA

- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa,
Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena:
5, 6, 8, 22, 42, 46
- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa,
Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena:
5, 8, 22, 42, 46
- 7/1981 Legea, ekainaren 30ekoa,
"Jaurilaritzaren Legeari buruz", 44. artikulua:
24, 36
- 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa,
Adingabearen Babes Juridikoarena, Kode
Zibila eta Prozedura Zibileko Legea hein
batean aldatzen dituena, 61, 63, 64, 65
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa: 9, 10,
11, 12, 13, 15, 21, 24, 25, 27, 29, 32, 33, 34,
35, 36, 37, 38, 40, 41, 42, 45, 46, 49, 50, 51,
53, 54, 55, 57, 62, 64, 65, 70, 71
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 3.
artikulua: 21, 35, 65, 64
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 7.6. .
artikulua: 37
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 8.
artikulua: 38, 42
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 11.
artikulua: 9, 24, 25, 32, 35, 36, 40, 41, 42,
46, 49, 51, 64
- 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 21ekoa,
Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoa. 11.1.
artikulua: 40, 64
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren
21eko, Datu Pertsonalak Babesteari
15/1999 Lege Organikoa garatzen duen
Erregelamendua onartzen duena. 5.1
f) artikulua: 40
- 1720/2007 Errege Dekretua, abenduaren
21eko, Datu Pertsonalak Babesteari
15/1999 Lege Organikoa garatzen
duen Erregelamendua onartzen duena. 5.1 f)
artikulua: 40
- 19/2013 Legea , abenduaren 9koa,
Gardentasunari, Informazioa Eskuratzeari eta
Gobernu Onari buruzkoa: 11, 29, 30, 31
- 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta
Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen
duena: 7, 14, 61, 63
- A**
- Aldi baterako langileak: 10, 19, 20, 31
Aldizkari ofizialak: 7, 15, 69, 70, 71, 72, 73
Arraza: 36, 37, 41, 50
Atzera bueltarik gabeko disoziazioa: 11, 35
- B**
- Baterazinak diren xedeak: 10, 27, 57
Berariazko idatzizko adostasuna: 29, 41
Bereziki babestutako datuak: 11, 13, 29
Beste ezertarako erabiltzea: 43
Bilaketa motorra: 71, 72, 73
Blokeatzea: 40, 73
- C**
- CN13-027: 27
CN13-051: 6, 9, 12, 24, 38, 40, 45
CN14-027: 6, 9, 12, 24, 39
CN15-012: 11, 24, 33
- D**
- Datu disoziatuak: 8, 11, 12, 20, 31, 33, 34, 35,
42, 51
Datu identifikatiboak: 7, 11, 20, 30, 34, 42, 52
Datu komunikazioa: 11, 35
Datu lagatzea: 8, 9, 11, 12, 13, 21, 24, 28, 35,
38, 40, 42, 43, 45, 46, 48, 51, 62, 64
Datu psikologikoak: 13, 50
Datu sentsibleak: 12, 13, 37, 41, 50
Datu tratamendua: 12, 13, 27, 30, 33, 34, 37,
38, 40, 41, 42, 43, 50, 51, 58, 65, 70, 72, 73
Datuak Babesteko Espainiako Agentzia: 30, 31
Datuak blokeatzea: 40, 73
Datuak ezabatzea: 7, 33, 69, 73
Datuak ezereztea: 7, 15, 40, 55, 69, 70, 71
Datuen kalitatearen printzipioa: 6, 10, 15, 27, 38,
42, 51, 52, 71
Delitugile Sexualen Erregistro Nagusia: 14, 61,
62, 63, 64

Diagnosi-ebaluazioak: 55, 56, 57

E

Ebaluazio psikoteknikoak: 13, 50

Ediktuak: 15, 71, 72

Ediktuen ohola: 15, 71, 72

Egokiak, bereizleak eta neurrikoak: 10, 13, 27, 42, 51, 52, 57, 71

Erakunde web orria: 15, 24, 48, 69, 72, 73

Erlijioa: 13, 25, 36, 37, 41, 50

Eskabide masiboak eta indiskriminatuak: 10, 11, 28

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria: 56, 70

Eusko Jaurlaritza, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 19, 21, 22, 23, 24, 25, 27, 31, 33, 34, 36, 38, 39, 43, 45, 46, 48, 49, 52, 53

Eusko Legebiltzarreko Erregelamendua: 8, 9, 12, 13, 22, 23, 24, 25, 33, 36, 39, 40, 41, 42, 45, 47, 49, 52

Eusko Legebiltzarreko Erregelamenduaren 11. artikulua: 12, 13, 23, 25, 33, 36, 39, 40, 41, 42, 45, 49, 52

Eusko Legebiltzarreko Mahaia: 9, 13, 22, 23, 33, 34, 43, 45, 47, 48, 52

F

Fitxategiaren arduraduna (erantzulea): 42, 55, 70, 71

G

Gardentasunari eta Gobernu Onari buruzko Kontseilua: 30, 31

Gehiegizko datuak: 42, 57, 62, 65, 72

Grabazioa: 6, 12, 39, 40, 41

H

Helburua: 13, 15, 26, 27, 28, 30, 31, 32, 42, 51, 52, 57, 58, 62, 65, 69, 71, 72

Helburutasun printzipioa, 42

Herriaren Defendatzailea, 51

Hezkuntza Administrazioa: 13, 53, 55, 56, 57

I

Identifikazio-datu hustak: 29

Ideologia: 25, 41

Ikastetxeak: 13, 53, 55, 56, 57, 58

Ikastetxe publikoak: 13, 53, 55, 56

Indexazio automatikoa: 15, 72, 73

Informazio agregatua: 11, 35

Informazio disoziatua: 8, 11, 20, 31, 33, 34, 35, 42, 51

Informazio eskaerak: 5, 6, 7, 11, 19, 27, 28, 33, 35, 39, 42, 43, 45, 52

Informazio sentsiblea: 12, 41

Informazioa lagatzea: 41, 49

Interes publikoa edo orokorra: 26, 29, 31, 37, 38, 41, 42, 50

Interes publikoa nagusitzea: 31

Intimitatea: 25, 26, 30, 31, 50

Irudiak: 12, 39, 40, 41, 42

Izendapen askeko funtzionarioak: 31

K

Kalitatea: 6, 10, 15, 20, 27, 38, 42, 51, 52, 58, 71

Kodeatutako edo enkriptatutako datuak: 35

Konfidentzialtasuna: 58

Konstituzio Auzitegiaren 2013ko urtarilaren 31ko Epaiak: 10, 28

Kontrol eginkizuna: 10, 12, 16, 19, 20, 21, 27, 31, 32, 35, 36, 38, 39, 42, 56

L

Lan kontratazioaren espedientea: 13, 45, 46, 49

Langile publikoak: 6, 7, 10, 19, 20, 22, 25, 31

Lege gaikuntza: 6, 8, 9, 11, 12, 13, 19, 21, 24, 25, 27, 33, 36, 40, 41, 42, 46, 49, 50, 52

Legebiltzarreko informazio eskubidea: 8, 12, 25, 29

Legezko helburua: 42

Lehia: 15, 26, 71

Lesioen mediku parteak: 11, 33, 35

N

Nahikoa lege gaikuntza: 9, 12, 13, 19, 21, 40, 46, 49

O

Osasun datuak: 11, 12, 13, 35, 36, 37, 38, 50, 51

Osasun datuak behar duten babes berezia: 11, 13, 36, 37

Osasuna: 12, 13, 36, 37, 38, 41, 50, 51

P

Pertsona identifikagarria: 7, 11, 34, 54

Proporzionaltasuna: 10, 11, 13, 20, 26, 27, 28,
42, 52, 54

Publizitatea: 15, 49, 71

R

Robot erakoak ez izate: 73

S

Sexu-bizitza: 13, 36, 37, 41, 50

Sinesmenak: 13, 37, 41, 50

T

Test psikoteknikoak edo nortasunekoak: 13,
49, 50

Tratamendu eragilea: 70, 71, 73

Tresna teknikoak: 73

Z

Zigor Aurrekariei buruzko Erregistro Nagusia:
14, 61, 62, 63, 64, 65

Zigor Aurrekarien Ziurtagiria: 14, 61, 62, 63

